

guaixe



Kalda dago

Berroteak bazterrak erre eta iturriak agortu ditu.

Abeltzainak larri dabilta / 6-7

EUSKARA

Euskara ikasi edo hobetu nahi dutenek euskaltegiko matrikula dohainik izanen dute / 5

BERTAKO ARRAZAK

Pottoken etorkizunaren alde, mikromezenazgo kanpaina parte har daiteke / 7

FUTBOLA

Denboraldi berrirako futbolarien dantza egon da talde askotan. Sakandarrak, ilusio handiz / 15

PILOTA

Alberto Ongayk Satrustegiko festetan esan zion agur pilotari, herritarren omenaldi beroa jasota / 16-17

ARTE ESZENIKOAK

Katrin Ginea ekoizle arbizuarra 'Mitoaroa' ikuskizunetan artisten koordinatzailea izan da / 22-23

SINADURAK

	JUAN KAR LOPEZ- MUGARTZA / 4		SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK / 4
	JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 8		MIKEL MAIZA RAZKIN / 22



optometria • audiolmetria • kontaktologia



%30

**EZAGUTU ETRO
EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
BILDUMA!**

San Juan kalea, 40 (Altasu)
948 563 124 | www.optikasakana.com



Euskal selekzioiko ordezkaritza guztia, sakandarrak barne. UTZITAKOA

HIPIKA

Amazona, zaldia eta familia

Maren Diaz, Ixone Adan eta Oneka Gastaminza hipikan ibiltzen diren hiru neska sakandar gazte dira. Beste bi neskekin batera, talde gisa, Raid modalitatean lehiatzen dira. Aurtengo Espainiako txapelketan zilarrezko domina lortu zuten

Miren Mintegi Claver SAKANA

Maren Diaz Urdiainen bizi da eta 15 urte ditu; Ixone Adan Altsasun bizi da eta 13 urte ditu; eta Oneka Gastaminza, berriz, Ziordian bizi da eta 13 urte ditu. Hirurak gazteak izan arren, hainbat urte

daramate zaldiekin eta hipikaren munduan murgilduta.

Marenek eta Ixonek Urdiainen hasi zuten haien bidea, Errotainen. Bertan, zaldiekin lehen kontaktuak izaten hasi ziren eta gero, Aguraingo Hipikan hasi

ziren, gaur egun Gopegin dagoe-na. Onekak zuzenean bidea Gopegin hasi zuen, Ixonek, bere klasekideak, egiten zuena ikusi eta gero.

Hiru neska gazteek animaliak gustuko dituzte eta, horregatik,

hasi ziren hipikan. "Beste animalia batekin harremana duzu, eta konfiantza asko lantzen duzu", adierazi du Marenek. Gainera, hiruiek animaliekin duten harremana azpimarratu dute: "Harreman horrek hipikan garrantzia handia du". Bakoitzak bere zaldia dauka: Marenenak Pia izena dauka, Onekarenak Jotake eta Ixonerenak Goldako Mapolka.

Etxea

Asko entrenatzen dute, ahal duten guztietan. Onekak dio: "Hipikara heldu, zaldia prestatu, ura edan eta entrenatzailearekin hitz egiten dugu". Gero, entrenamenduari hasiera ematen diote. Egia da beti ez dutela entrenamendu edota errutina berdina egiten. "Oso irregularra" izaten dela dio. Marenek: "ordu asko eskaintzen dizkiogu". Gainera, familiaren garrantzia azpimarratu nahi izan du ere: "oso sakrifikatua da, baina ez bakarrik guretako, gure familiendako ere bai". Izan ere, entrenamendu bat oso luzea izan daiteke. Onekak dioen bezala: "entrenamenduak ez dira ordu batetik bestera egiten den zer-bait". Ixonek azaldu du: "Hori da, bertara heldu, zaldia prestatu, entrenatu, dena jaso... ordu asko dira". Hipikaren oinarritzat, beraz, "amazona, zaldia eta familia" direla azpimarratu nahi izan dute.

Hipika ez da bakarrik entrenatzeko leku bat. "Etxe" baten moduan sentitzen dute neskek. Onekak esan duen bezala: "Nahi dugunean joan gaitezke, zaldiekin egotera, paseoak ematera. Gainera, batzuetan ere ekintzak eta hitzaldiak antolatzen dituzte. Adibidez, zaldiaren anatomia inguruko hitzaldi bat". Beraz, entrenamendu eta lehiak aparte, hipika haien bizitzaren parte sentitzen dute.

Lehia

13 eta 15 urte dituzte eta ponien C kategorian lehiatzen dira. Lau modalitate daude gainera: doma klasikoa, saltoak, Raid-a eta lehiaketa osoa. Zehazki, Raid-ean

"Oso sakrifikatua da, baina ez bakarrik guretako, gure familiendako ere"



MAREN DIAZ

"Prestaketa prozesu luze bat da, abendutik egon ginen horretarako entrenatzen"



IXONE ADAN

"Guk egun txarrak izaten ditugun bezala, zaldiek ere eta hori nabaritzen da"



ONEKA GASTAMINZA

lehiatzen dira neskek, talde gisa. Bertan, ingurune natural batean markatutako ibilbide batean, kilometro zehatz batzuk egin behar dira, aurretik ezarritako denbora tarte batean. Gainera, une oro zaldiaren abiadura, be-

- Kristal aldaketak
- Lanta berritzeak
- Adeitasun autoa doan
- Barruko eta kanpoko garbiketa

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Hiru sakandarrak taldeko gainerako kideekin. UTZITAKOA



Taldekideak, zilarrezko domina kolkoan dutela. UTZITAKOA



Ixone Adan zaldi gainean. UTZITAKOA



Onea Gastaminza amazona. UTZITAKOA



Proba bete-betean. UTZITAKOA

rreskuratzeko gaitasuna eta zaldiaren erresistentzia kontrolatu behar dira.

Ibilbidea kontrol puntuetan banatzen da, eta zaldia kontrol puntuetatik pasatzen den guztietan zaldiaren egoera arauak ezarritakoa izan behar du. Arauren bat ez betetzekotan, esate baterako, zaldiaren bihotz-maiztasuna altuegia izatea, denbora tartetik kanpo iristea... kalera-tzea suerta dezake.

Aurten, hiru neskak, haien beste bi taldekideekin batera, Euskal Selektzioarekin Espainiako txapelketan aritu dira pasa den ekainean. Bertan, bigarren postua lortu dute. Esperientzia "oso polita" izan dela esan dute hirurek. Ixonek esan du: "Prestaketa prozesu luze bat da, abendutik egon ginen horretarako entrenatzen"

Esan bezala, Raid-aren modalitatea, talde modalitate bat da, zeinetan helburua ibilbide zehatz bat ahalik eta denbora egokienan egitea da, aurretik markatutako denbora bat errespetatuz. Eta garrantzitsuena, zaldiaren osasuna eta ongizatea errespetatuz une oro. Talde-lan bat den heinean, bakoitzak paper bat jokatzeko du. Ilara batean doaz, lehenengoak denbora eramaten du, erdikoek erritmoa eta azkena orokorrean dena ongi doala begiratzeko. Normalean, paper bera egiten du bakoitzak. Marenek eta Ixonek denboraren ardura izaten dute eta Onekak erritmoaren kontrola eramaten du.

Talde batean, ezinbestekoa da taldekideen arteko harremana. Eta kasu honetan, neskena zein zaldiena ere. Hipika eta zaldiketaren munduan, zaldia muntatzen duena, amazona da, emakumezkoaren kasuan. Eta honek zaldia batekin batera sortzen duen batasuna binomio izena hartzen du.

Diziplina hau aukeratu zuten, besteak beste, beste diziplinak banakakoak direlako eta Raid-ean talde harremana gehiago lantzen delako. Eta hiru neskek etengabe azpimarratu nahi izan dute talde harremanaren garrantzia.

Harremanak berebiziko garrantzia duenez ordena "oso garrantzitsua" dela dio Onekak. "Adibidez, bi zaldik ez badute oso harreman ona, ezin ditugu elkarrekin jarri". Eta horrela harmonia mantentzen saiatzen dira.

Uzta

Aurtengo denboraldian emaitza onak Raid-ean lortu badituzte ere, beste modalitateetan ere entrenatzen dira. Zehazki Ixonek eta Marenek lehiaketa osoa egiten dute, hau da, doma, saltoak eta kross-a. Onekak Trek, orientazioan datzana gehienbat.

"Denboraldian zehar, gora-behera handiak daude", Maren. Onekak azaldu du: "Badaude egunak oso baxu zaudela eta ez duzula entrenatzera joan nahi, ez duzula gogorik. Baina, gero lortzen ditugun emaitzak eta aurrerapenak ikusten ditugunean, atzera begiratu eta esker-tzen duzu joan izana".

Prozesu horren emaitzak ikustek motibazio handia ematen diela adierazi dute hirurek. Garapenei dagokienez, atzera begiratu eta aurrerapauso handiak eman dituztela ikusten dute: "muntatzen ikasi dut", Onea. "Nire zaldia gehiago ezagutzen dut eta horrekin asko hobetu dut". "Konfiantza gehiago daukat nigan eta orain badakit zer eginge teko gai naizen", Maren.

Emozioek ere garrantzia handia dutela azpimarratu nahi izan dute. "Guk egun txarrak izaten ditugun bezala, zaldiek ere eta hori notatzen da.", Onea. Gainera, buru osasunaren garrantzia ere azpimarratu dute. Bakoitzak bere buruarengan konfiantza izatea eta haien buroak kontrolatzea ezinbestekoa dela diote, dena ongi joan dadin.

Onekak, Ixoneri esker eza-gutu zuen hipikaren mundua eta, beraz, hirurek pertsona guztiei gonbidapena zabaltzen diete probatzera. Kirol hau ez da oso ezaguna, edo hobeto esanda, ez du ematen eskuragarri dagoenik. Marenek azaldu du: "Nik uste geroz eta ikusgarritasun handiagoa duen kirol bat dela, baina oraindik badagoela jendea uste duena hemen ezin dela egin".

Etorkizunari begira, hiru gazteek argi daukate hipikan eta zaldiekin jarraitu nahi dutela. Lehiaketetan parte hartzen, entrenatzen... "Zaldiekin jarraitu, lasterketak egin, entrenatu... eta gauza handiagoak egiten", jarraitu nahi duela adierazi du Ixonek. Badute datorren denboraldirako helburu argi bat: Espainiako txapelketan urrea lortzea. Beraz, hiru neska gazteek gogor entrenatzen jarraituko dute, haien helburuak lortzen jarraituz.

ASTEKOA

Basaluzeko Dorreko telegrafista

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Basaluzeko Dorreko telegrafistak Ziordiko Telegrafotik seinale bat jaso eta hurrengo dorrera, Egubera Gañeko Torretxikira, bidaltzen du berehala. Haren lana komunikazioa irekita mantentzea da, mezuen pribatutasuna errespetatuz. Telegrafistak ez du mezua edukia ezagutzen; komunikazio kanala beti irekita edukitzea da bere lana, ez inoren mezuak irakurtzea.

Goizean ekialdea lainotuta badago eta Ziordiko dorrea ezin bada ikusi, mezua ez da Basaluzera iristen. Iparraldeko lainoak Torretxiki ezkututzen badu, seinaleak ezin du bere bidea jarraitu. Telegrafista adi dago, ordea: lainoa desagertu bezain laster, mezua bidali eta komunikazioa berrezartzen du.

Basaluzeko dorrea Urbasako ipar-ekialdean dago, Irubideko gurutzebidearen gainean, eta Sakanako hiru dorreetatik zutik dirauen eta zaharberritu den bakarra da. Bigarrena, Torretxiki,

Gurdilatzetik hurbil dago, baina José Zufiaurre Goyak dioenez, haren hondakinak besterik ez dira geratzen, 1932an eraitsi baitzuten Martinsagastiko etxea eraikitzeke. Hirugarren dorrea Ziordian zegoen, eta hura ere 1956an bota zuten, haren harriekin frontoia berreraikitzeke.

Madril-Irun linea telegrafikoa 52 dorrek osatzen zuten. Sakanako hiru dorreak kate horretako katebegiak ziren. Gaur, mundu guztiz

ezberdin batean bizi gara. Mezuak planetaren bazter batetik bestera milisegundotan iristen dira. Ez dugu dorre edo telegraforik behar, eta lainoak ez ditu gure komunikazioak oztopatzen; baina garai hartan Basaluzeko telegrafistak gure pribatutasuna eta gure hitzak babesten zituen. Nork babesten ditu orain?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali.

Gutunak astearte 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak:

egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bakarrik sentitzen zara?

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Bizitzako unerren batean, ia denok sentitu gara bakarrik: egun zail baten ondoren, galera baten ostean, lanpostuz aldatzean edo baita jendez inguratuta gaudenean ere.

Bakardadea esperientzia emozional bat da. Gure harremanek laguntasun, maitasun edo talde bateko kide izateko beharrak asetzen ez dituztela sentitzen dugunean agertzen da. Bakarrik egotea ez da beti negatiboa; borondatezkoa denean, aberasgarria da atseden hartzeko edo hausnartzeko. Arazoa nahi gabekoa denean sortzen da, harreman esanguratsuen faltak hutsune sakona eragiten duenean. Horregatik,

pertsona batek familia edo lagunak izan ditzake inguruan eta, hala ere, bakarrik sentitu.

Nahi gabeko bakardadeak tristura, antsietatea eta autoestimu baxua dakar. Denboran luzatzen denean, isolamendua areagotu eta haustea zaila den zirkulu bat sortzen du. Gaur egungo gizartearen paradoxa da: lagunduta egon arren bakarrik senti gaitezke, presentzia fisikoak ez baitu lotura emozionala bermatzen.

Zer egin dezakegu aurre egiteko? Ez dago irtenbide miragarriarik, baina badaude hobeto sentitzen laguntzen duten pauso txikiak: nola sentitzen garen hitzez

adierazi, bizitza aktiboa mantendu, harremanak zaindu, topagune berriak bilatu eta laguntza eskatu.

Bakardadeari aurre egitea komunitatearen erronka ere bada. Denok lagun dezakegu keinu txikien bidez: bakarrik bizi den auzokide batez interesatzea, senide bati deitzea edo lagun bati patxadaz entzutea. Elkarrizketa batek edo irribarre batek uste baino eragin handiagoa du.

Nahi gabeko bakardadea ez da beti ikusten. Horregatik da hain garrantzitsua horri buruz hitz egitea eta pertsonak entzunak eta baloratuak sentituko diren komunitateak eraikitzea. Denok behar dugu zerbaiten parte garela sentitu.

Eta zuk, norbaitek "zer moduz zaude?" galdetzen dizunean, benetan nola sentitzen zaren esatera ausartzen al zara?

OBJEKTIBOTIK

Bihotzetik jaurtitako suziria

Lakuntzako festetako txupinazoa Endika eta Eneko Alegria Gonzalez anaia bikiek piztu zuten, donazioa eta elkartasunaren erakusle. Bihotzak huts egiten hasi zitzaientetik, batek bihotz transplante bat jaso du eta besteak etorkizunean jasoko du. Haiekin Uxua Garziandia zegoen, Adonako Lakuntzako delegatua. Emaileak, osasun langileak, familia, herritarrak... guztiak izan zituzten gogoan. "Odola eta organoak ematea itxaropena da, bizitza oparia" izan zen txupinazoko mezua.



LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

guaixe
kide



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



guaixe
komunikazio taldea

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Laura Olmos Aristorena
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Miren Mintegi Claver
Oihan Unamuno Ruiz
Zuzentzailea:
Felix Altzelai Iriarte

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza
23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200
Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GUAIXEK ez du bere gain hartzen aldikari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Klinikaren Iruñeko egoitzan ariketak egiten. UTZITAKOA

OSASUNA

Josefina Arregi klinikaren Iruñeko egoitza berria zabalik

Klinikak arreta psikogeriatrikorako zentro berriarekin eskaintza zabaldu du. Halako beste bat du Gasteizen

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Klinikak Iruñeko arreta zentroa zabaldu zuen agorrilean. Iruñeko Cordovilla auzoan egoitza zabalik zuen 2020ko udazkena akaberaz geroztik. Baina handik Buztintxuri auzora aldatu da. Egoitza berriarekin klinikak orain arte Iruñean eskaintzen zituen zerbitzuak zabaldu eta adineko pertsonen eta haien familiei zuzendutako arreta espezializatua indartu du.

Buztintxuri auzoan kokatutako zentro berriak hainbat baliabide eta profesional biltzen ditu arreta integrala eskaintzeko: psikogeriatria eta geriatria kontsulta medikoak, neuropsikologia eta estimulazio kognitiboa, fisioterapia, mantentze fisikoa eta errehabilitazio funtzionala, okupazio terapia eta zaintzaileendako laguntza, eguneko zentro psikogeriatrikoa (30 plaza) eta Familia Atsedenerako Zerbitzua, asteburu eta jaiegunetarako.

Zentroak 15 profesionaleko taldea izango du, eta horrek 10 lanpostu berri sortzea ekarriko du. Klinikaren hiru egoitzetan ehun langile baino gehiago ari dira lanean.

Aitortza sortzaileari

Altsasuko Udalak Iortia kultur gune pareko espazioari izena ematea erabaki du: Felipe Lecea Larrea plaza. Udalak erabakia agorrilaren 26ko bilkuran hartu zuen, Geroa Baik proposatuta. Hala, "azkenik, Felipek beti me-

rezi izan zuen omenaldia izanen du", adierazi du Javier Ollo Martinez alkateak. Gaineratu duenez, "Lecea iruditeria kolektiboan lan onaren adibide gisa egotea merezi duen altsasuarra izan zen, eta, horregatik, udalak eta herriak, oro har, beti merezi izan zuen omenaldia eskaini behar diogu". Lecearen ekintzailetasuna eta Altsasurekin zuen konpromisoa nabarmendu ditu. Zor bat kitatzearen sentipena adierazi du ere. Izendapen berriak Iortia kultur gunearen posta helbidea aldatzea ekarri du: Frontoiz zeharbidean egotetik Felipe Lecea Larrea plazan ego-tera pasa da.

Lecearen emaztea, Josefina Arregi, Alzheimer gaitzarekin gaixotu zen. Eritasuna gertutik bizitzeak Lecearengan eragin handia izan zuen. Horregatik, bere dirua Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten pertsonen zuzendutako klinika egitera bideratu zuen. Lehenik, bere izena zuen fundazioa sortu zuen 1993an. Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoa 1994an zabaldu zituen ateak. Bidean Leceak Vicente Madoz psikiatraren laguntza izan zuen.

"Lecea iruditeria kolektiboan lan onaren adibide gisa egotea merezi duen altsasuarra da"

EUSKARA

Ez dago buelta gehiago eman beharrik: ikasi edo hobetu euskara

Euskaltegiko matrikula %100ean diruz lagunduta dago

SAKANA

Euskaltegietako matrikulazio epea irekitzearekin batera, Sakanako herritarrek euskara ikastera edo hobetzera eta, horretarako, euskaltegien izena ematera animatzen ditu Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Ibarreko erakundeko euskara teknikariek jakinarazi dutenez, "aurten Mank-ek bikoiztu egin du euskara ikasleendako dirulaguntzaren diru-saila, 25.000 eurotik 50.000 eurora pasatuz". Onuradunek, gehienez ere, 1.000 euroko dirulaguntza jaso dezakete. Euskara teknikariek gaztigatu dutenez, "2025-2026 ikasturteko dirulaguntzak eskatzeko epea irailaren 30ean despedituko da".

Euskara ikasleek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak eskatzeko aukera dute ere. "Baina horiek ikasturte hasieran eskatu behar dira, azaroaren 3ra arte", jakinarazi dute. Gaineratu dutenez, "ikasturte berrian hasiera mailako ikasleek (A1 eta A2 mailak) gobernuaren %100eko dirulaguntza jasoko dute. Gainerako mailetan 475 eurora arteko dirulaguntza jaso dezakete".

Teknikariek jakinarazi dutenez, Mank-en eta gobernuaren dirulaguntzak bateragarriak dira, beraz, bien artean euskara ikasleek matrikularen %100 estaltzea espero da (beti ere, gehienezko dirulaguntza gainditzen ez bada). "Modu horretan, sakandarrek ez dute udalean dirulaguntzarik



AEK-ko ikasle eta irakasleak euskaltegiaren 30. urteurren galan. ARTXIBOA

eskatu beharrik izanen, tramitea sinplifikatuz".

Herrietan ere

Euskaltegiek bost hamarkada daramatzate Nafarroan euskara irakasten, euskarazko hiztunak sortzen, nafarrak euskaraz bizi daitezen bultzatzen eta euskarazko kultura zabaltzen. Sakanan, AEKren Itsasi euskaltegiak maila guztiak eskaintzen ditu, goizez nahiz arratsalde. Malgutasun handiagoa behar duenak autoikaskuntza aukeratu dezake. Euskaltegiak Altsasun du

egoitza, baina gaur egun, Irurtzunen, Lakuntzan eta Etxarri Aranatzan ere euskara ikasteko taldeak daude. Taldea sortzen bada, beste herrietara ere joateko prest daude.

Bestalde, klaseen osagarri, ikasleek euskara praktikatzeko Mintzakide programan parte har dezakete. Euskara ez erabiltzeagatik "erdoildu" egin zaionak edo euskaraz dakitenen pertsonen sarea zabaldu nahi dutenek ere parte har dezake Mintzakiden. Izen ematea dohaia da.

Euskaltegien eskaintzaren eta dirulaguntzen berri izan nahi duenak Euskara Zerbitzura jo dezake: euskara2@sakana-mank.eus e-postara mezua idatziz edo 948 464 840 telefono zenbakira hots eginez. Informazioa ere Elaide.eus webgunean opa daiteke.

Mank-en eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak bateragarriak dira

EKLIPSEA

Sikiera bizitzan behin ikusita

Eguzki eklipse osoa izan zen agorrilaren 12an. Sakandarrek hainbat plan egin zituzten aparteko astronomia gertaera ikusteko. Esaterako, 90 urtetik gora dituzten Juan Mari Goikoetxea, Patxi Goikoetxea eta Angel Diaz urdiaindarrek Cristobal Goikoetxeak lagunduta ikusi zuten eklipsea.



UTZITAKOA

BEROTEA

Abeltzainak, kezka eta esperantzaren artean

Behar baino gehiago luzatzen ari den beroteak lehortea ekarri du. Ondorioz larreak erre eta iturburuak agortu dira. Mendiak beharko lukeenazienda, ibarrean da, eta negurako beharko lukeen bazkaz elikatzen ari da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Uharte Arakilgo Artzain Eguneko gazta azokan hainbat gaztandegitako salmahaiak zeuden. Haietako lau sakandarrenak ziren. Beroteak lehen sektorean utzi duen arrastoaz iritzia eman zuten. Aitor Campion Ganboa Arruazuko Albi gaztandegikoa da eta esan duenez, "urtero zeruak ematen digunarekin moldatu behar dugu. Eta aurten pixka bat zailago jarri digu". Unanuko Beriain gaztandegiko Isabel Balda Mercero gogorazazi duenez, "udaberrian euri asko egin zuen, maiatzera arte. Baina ekainetik ez du euri arrastorik egin. Eta, geroz, larreak eta dena oso seko daude. Nahiko gaizki. Nik uste dut halako uda txarrik ez dugula ezagutu inoiz. Eguraldia makurtzen joan da". Altsasuko Larrezabal Eco gaztandegiko Patxi Amillano Garasak unanuarren esanak berretsi ditu: lehorte ikaragarria etorri da eta orain lehortea sufritzen ari gara. Ahal dugun bezala moldatzen gara. Bertako animaliekin lan egiten dugu eta hori gure alde da. Zeren animaliak ohituta daude halako estualdiak pasatzen. Espero dugu buelta ematea". Baldak azaldu duenez, moldatzea "nahiko zaila izan da". Uharte Arakilgo Sustrai gaztandegikoa da Unai Martinez Sebastianek esan laburbildu duenez, "aurten makal. Batez ere uda partean. Baina biziraun dugu".

Ganaduzaleek aurten belarra sekula baino lehenago sartu zuten biltegiatara, maiatza aka-

berarako. "Beharrik", esan du Baldak. Campionek azaldu duenez, "zelaia ongi lehortu ziren eta bazirudien izugarritzko urtea izanen zela. Bigarrena egiteko zain geunden, eta hala segitzen dugu. Belarrak euririk gabe ez dute aurrera egiten. Ezin izan genuen nahi bezainbat jan egin udaberrian". Martinezek esan duenez, sartutakoa belar "ona" da. "Hainbat belarditan bi belar mozketa egin ditugu. Ondoren lehortea etorri da".

Amillanok azaldu duenez, "ekologikoan lan egiten dugu eta belardietan lan asko egiten dugu, etxeko belarrak ahalik eta goxoenak egiteko. Udaberri hasiera oso atzeratua izan genuen. Ondoren eguzkia aterazen, baina mozteko adina ez zegoen. Eta, gero, pixka bat pasa egin zen. Hala ere, etxerako moduan bildu dugu". Hiru belar mozketa egitekoak dira eta aurten larre batzuetan bakarra eta

"Euritan hasiko den esperantza dugu. Baina gauza ongi jartzeko euri asko egin behar du"



ISABEL BALDA MERCERO

besteetan bigarrena egin dute, "baina oso gutxi jaso dugu. Kalitate kaxkarrekoa, gainera". Campionek argitu duenez, "ekoizpen ekologikora pasa gara orain. Jateko ekologikoa erosi beharra dugu. Ohikoa ez badago, ekologikoa gutxiago".

Laurek ere zalantza dute sartutako belarrarekin nahikoa izanen duten: "hasieran baietz zirudien, baina uda honekin, orain zalantza dugu neguan ongi edo estu ibiliko ote garen", esan du Martinezek.

Ikuiluan eta mendian

Beraz, negurako gordeta zuten bazka orain ari dira ardiei ematen. Amillanok azaldu duenez, "ardiak etxean izaten ditugu eta saiatzen gara ahalik eta gehien zaintzen. Bazkarekin eta urarekin laguntzen diegu. Saiatzen ari gara ardiak ahalik eta gutxien sufritzea. Zeren tenperaturagatik eta bazka faltagatik sufritzen

"Azienda kopurua Aralar mendian pila igo da eta denondako janik eta urik ez zegoen"



AITOR CAMPION GANBOA

ari dira. Aurten aurrera egiteko komeriak".

Baldak esan duenez, "ardi batzuk Andiara, Leizago alderdira, igo genituen. Baina beraiek bakarrik etorri ziren herrira. Sobra ere, ez zegoen janik. Oso gutxi, hilabeteren bat eginen zuten mendian. Orain belarra eta pentsua ematen ari gara. Barruan ditugu ardiak, zeren kanpoan ez dago ezer". Ubertearren artaldea Beriain magalean dago, aharietara. "Han ere jateko gutxi dago. Pixka bat lagundu behar zaie, eta belar bolak eramaten dizkiegu. Tarteka ikuilura ere jaisten ditugu, ura ondo edateko. Zeren mendi magalean leku guztietan ez dago urik", esan du Martinezek.

Arbazuarrek artaldea Aralarrera igo zuten. Baina "ahulen zeuden ardiak abuztuko hiru garren astean jaitsi ditugu. Antzu zeuden eta behean ernaltzen lagundu ditugu. Bildotsak ere

"Ardiak ernaltu dira eta ongi daude, baina negurako zen bazka eman diegulako"



UNAI MARTINEZ SEBASTIAN

normalean baino lehenago jaitsi ditugu, uztaila akaberan. Baina oraindik artaldearen erdia edo mendia dugu. Ernaldutako ardiak dira". Campionek gaineratu duenez, "ez dakit zer jan eta edaten duten, baina momentuz ongi daude. Ardiak beti opatzen du hostoren bat-edo. Izan ere, lurlean ez dagoenean ardia arbolen parean tentetu eta hostoak jaten ditu. Pentsu pixka batekin lagunduta, horrela ari gara moldatzen". Behean dituzten ardiak "larreetan 'paseatzen' daude, larreak erreta daudelako". Arbazuarrak aitortu duenez, "jarraipen berezia egiten ari gataizkie. Zeren hain ongi ez daudela ikusten dugunean behera jaitsi eta jana eman beharko diegu".

Ernaltzea

Martinezek jakinarazi duenez, ardiak ernalduta badaude negurako bazka eman dietelako

"Saiatzen ari gara beroa eta bazka faltagatik ardiak ahalik eta gutxien sufritzea"



PATXI AMILLANO GARASA



Hiru behor lehortutako Andian.



narazi duenez, bazka eta urik ez dagoenez, menditik jaitsi behar izan dituzte. Ganaduzale guztiak berdin dabiltzala berretsi du Amillanok eta Baldak.

Campionek argitu duenez, "behor eta behi asko ardiak baino lehen jaitsi dituzte menditik. Ardiak ez du hainbeste behar eta pixka bat gehiago moldatzen da". Aralarrek jasaten duen kargari erreparatu dio arbazuarrak: "behorrak, 500 buru ingurutik 1.000 burura pasa egotera gara bost urtetan. Azienda kopurua Aralarren pila igo da eta horien guztiendako jana eta ura... Zerbait egin beharra dugu, zeren mendiak ez dio denari eusten. Edo hori ongi kudeatu beharra dago. Baina nola aztertu beharko da".

Klima aldaketa

Adituek iragarri dute halako berroteak ohikoak izanen direla etorkizunean. Horren aurrean, ubertarrak esan duenez, "ohiturak aldatu edo moldatu beharko ditugu. Negu partean kanpoan eduki eta udan ikuilura sartu. Lehen egiten zenaren kontrakoa. Zeren neguak ez dira hain latzak, eta ardiak kanpoan egon daitezke". Unenuarrak: "halako beroak, penagarria da. Kezkagarria. Urte asko dira bero handiekin. Zerbait pentsatu beharra dago, bai".

Arbazuarrak "orain arteko" errezetari erreparatu dio: "moldatu, ahal bezain ongi egin. Eta ikusi zer baliabide dauden, zer aukera dauden, zer gertatzen den". Altsasuarrak esan duenez, "argi dago gure aldetik egokitzapena egon behar duela. Garai berriak etorri behar direla. Ea gai garen. Sektore indartsua gara. Saiatuko garela ziur nago. Ea lortzen dugun! Zeren, halako estualdiekin, gerta daiteke bidean ere jendea gelditzea. Uste dut sektore heldua garela, sektore indartsua garela eta egokituko garela".

Amillanok esana: "hurrengo negua nola izanen den begira gaude dagoeneko". Campionen nahia da "ea negua ez den gehiegi luzatzen eta udaberria bere garaian hasten den". Zeruari begira, Martinezek: "udazken euritsua izatea eta belarra ateratzea, etxeko jana agortzen bada, zerbait begiratu beharko da". Baldak nabarmendu duenez, "euritan hasiko den esperantza dugu. Baina gauza ongi jartzeko euri asko egin behar du".

izan da. Zainketa hori azpimarratu du Baldak, "belarra, pentsua eman. Aurrekoan ekografiak egitekoak ziren, nola zeuden jakiteko". Amillanok azaldu duenez, "estalketak orain izan ditugu. Nahiko motel hasi ziren. Gero hobetu da. Orain itxaron behar, ongi estalduta ere bueltak etor daitezkeelako". Arrisku hori aipatu du Campionek ere: "momentuz, ernalduta daude, itxura onarekin. Baina zaindu beharra dago, umea gal dezaketelako. Eta umea galtzen badute, ez badago arkumerik ez dago esnerik. Eta esnerik ez badago, ez dago gaztarik".

Baldak azaldu duenez, arku-meak eguberritan saltzen dituzte. Campionek jakinarazi duenez, "Kalaska kooperatibako kideak gara eta arkumeen salmenta zuzena ere egiten dugu. Sumatzen dugu. Lehen arkumeak ez zuen etxean diru askorik uzten. Baina orain zuzenean salduta, bitartekari guztiak kenduta, puskatxo bat uzten du". Amillanok nabarmendu duenez, "gure latxa arkumea, esne arkumea, kalitate handikoa da. 6-7 kilorekin saltzen da. Jendea arkumea probatzera gonbidatzen dugu. Zeren jende gazteak gero eta gutxiago probatzen du arkumea. Eta oso kalitate handiko arkumea dugu.

Beste aziendak

Ardiez aparte, abeltzain sakan-darrek zaldi eta behi azienda ere badute. Buru horiek guztiek orain mendian egon beharko lukete, baina Martinezek jaki-

BERTAKO ARRAZAK

Pottoken etorkizunaren alde egiteko edozeinek eman dezake dirua

Crowdfunding kanpaina abiarazi du Pottoka Lagun elkarteak Goteo.org-en

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Pottoka Lagunek, Pottoka Hazleen Nafarroako elkarteak, Sakanako Garapen Agentziak, Kalaska kooperatibak Pausoka proiektua martxan jarri dute. Haren bidez, "pottokaren etorkizuna bermatu nahi dugu, lurraldeko baliabide naturalak modu eraginkorrean bizitzeko eta aprobetxatzeko gai den arraza autoktonoa", azaldu dute elkarteko kideek. Egitasmoaren helburuak dira, batetik, "pottokarendako produkzioarako eredurik osasungarriena, jasagarriena eta errentagarriena identifikatzea". Bestetik, "ikerketa paleogenomiko bat garatuko da zaldiak Nafarroan eta Euskal Herrian izan duen bilakaera ikertzeko, aztarna arkeologikoen antzinako DNAREN analisiaren bidez. Lan honi esker, Iberiar Penintsulako antzinako leinu autoktonoen eta estepa euroasiarretatik iritsitako zaldi etxekotuen arteko harremana eza-gutu ahal izango da".

Aldi berean, elkarteak Pottoka Lagun sarean egitasmoa sustatu nahi du. Azaldu dutenez, "ekoizleak eta kontsumitzaileak zuzenean konektatuko dituen plataforma kolektiboa, kontsumo arduratsua, zuzeneko salmenta eta merkaturatze bide laburrak sustatzeko". Web orri bat izango da, "ikus-entzunezko edukien eta komunikazio tresnen bidez, landa mundua gizartearengana hurbilduko du, eta erakutsiko du ekoizpen ekologiko eta estentsiboko eredu batek gure mendietako biodibertsitatea elikagai bihurtzen duela".

Egitasmoak Nafarroako Gobernuaren %90eko dirulaguntza jaso du. Pottoka Lagun elkarteak funts propio nahikorik ez du ia 12.000 eurori aurre egiteko. Horregatik, dirua lortzeko crowdfunding kanpaina bat martxan jarri du goteo.org webgunearen bidez. Elkarteak gutxienez 2.980 euro lortu nahi lituzke, baina haiendako diru kopuru optimoa 8.786 euro litzateke. 15, 30, 50, 100, 250, 500, 1.000 eta 2.500 euroko ekarpenak egin daitezke. Halakoetan ohi den bezala, ekar-



Pottokak Andian. THE PIXEL NOMAD CÉCILE ZAHORKA

pena egiten duenak trukean zerbait jasoko du. Kanpaina irailaren 2an, asteartean, abiarazi zuten. Berrogei egunez, lastailaren 11ra arte, egonen da proiektuaren alde ekarpenak egiteko aukera.

Aurkezpen erronda

Iruñeko Udalak *Autentika* ganadu azokaren bigarren edizioa antolatu du irailaren 4tik 6ra. Runa parkean eta Gasen eskortetan egingen da Nafarroako tokiko arrazen, zuzeneko salmentaren eta hurbileko elikagaien inguruko azoka. Eta Pottoka Lagun elkarteak azoka baliatuko du Pausoka proiektua aurkezteko.

Aurkezpena Gaseko eskortetan egingen dute igandean, irailaren 6an, 11:15ean. Hutsun txalapartarien emanaldiaren ondoren egitasmoa eta crowdfunding aurkeztuko dute elkarteko kideek. Horretarako bideo bat dute zeinetan basozain, suhiltzaile, biologo, dendari eta sukaldari banak azalpenak ematen dituen. Ikus-entzunezkoaren helburua da "gizarteak ulertzeak pottokak zer paper duen naturan", azaldu dute elkartekideek.

Elkarteak aurkezpenak egingen ditu Iruñean, Zaraitzun, Irurtzunen eta Etxarrin

Ondoren Joseba Argiñano Ameztoti sukaldariaren eta Aritz Ganboa De Miguel artzainaren txanda izanen da. Biek erreze-ta bat prestatuko dute jendaur-rean. Bai Argiñano bai Ganboa pottoka jabeak dira biak. Horretaz aparte, elkarteko kideek pottoka haragiz egindako hezur salda, haragi bolak, saltxitxak eta txistorra dastatzera emanen dute. Aurkezpena 12:30ean des-pedituko da.

Elkartekoek aurkezpen gehiago egingen dituzte: irailaren 12an, larunbata, Zaraitzuko Egunean; irailaren 13an, igandea, Irurtzun eta Arakilgo Bertako Ganadu Azokan eta lastailaren 4an, igandea, Etxarriko ferietan. Hiruetan proiektuari eta mikromezenaz-go kanpainari buruzko informazioa emanen dute, eta pottoka haragiz egindako produktuak dastatzera emanen dituzte.



KOLABORAZIOA

Sakanako lexia konposatuak (XXI)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON
HIZKUNTZALARIA

Ipurdi batetik kaka egin, Ipurzulo beretik kaka egin Hauexek Nafarroako euskal hizkeretako aditz perifrasiak ditugu. Erabat ados egotea gauza guztietan adierazten dute. Pertsonai egokitzen zaie oso ongi konpontzen direla esateko, bai iritzietan, bai harremanetan. *Malamente abil Pello konbenzittu neyen, biak eta Joxek ipurzulo beretik eitten ye kaka!* (Alferrik habil Pello konbentzitu nahian, berak eta Joxek ipurzulo beretik egiten diate kaka!). OEHN horrela dakar: *"Ipurdi batetik kaka eginez dabilta (AN-gip)"* [= 'están de acuerdo'] Gte Erd 201. *"Ipurdi beretik kaka egiten dute (BN-arb)"* Ib. 223."

Itto ez ito Aranatzan eta Arakilen erabili izan da esapide hau. Itotzeko zorian. Gaztelaniako "a punto de ahogarse" adierazten du. *A, ze sustue artu deen goizien, or yondu dek ibeyen itto ez itto!* (A, zer sustoa hartu duen goizean, hor egon duk ibaian ito ez ito!). Honela dakar OEhk: *"Itto ez ito (AN-larr)." "Galdu ez galdu, itto ez itto egona naiz"* Inza NaEsZarr 229."

Itogarrian ibili/egon Etxarri Aranatzan jaso da aditz perifrasi hau. Estu-estu ibili/egon, gehienetan lanaren inguruan. *Ittokarrien niok aspaldi yontan!*

(Itogarrian nagok aspaldi honetan!). Honelaxe dator OEHN: *"Itogarrian. Intentando asfixiar. Frantzi ta España zizini txarrez / itogarrian dabilta, / nai ta nai ezko zerraila imini, / erdera aoko giltza. Ayesta 91."*

Ibili ta buelta Erabilera orokorreko esapidea dugu haur. Azkenean, azken batean. Dena dela. *Zubietak, ibilli ta buelta, atzia beix iraazi dik!* (Zubietak, ibili eta buelta, atzera berriz irabazi dik!). OEHN antzekoa dago jasorik Bergara aldean: *"Jira eta buelta. (V-gip ap. Elexp Berg). a) De una forma u otra, al final. "Badakitt ze pasau bia daben; jira ta buelta, azkenian neuk ein biakoittut lan guztiak"* Elexp Berg. *Eztabaida guztietan, jira ta buelta, aberatsak beriari eutsitzen zetsan.* SM Zirik 9."

Ijili-ajala ibili, Ihihi eta ahaha Sakanan eta Luzaiden entzun zitezkeen esapide hauek. Lehena Sakanan eta bigarrena Luzaiden. Ganorarik gabe, ardurarik gabe ibili. Lehena, Sakana aldean entzun daiteke eta bigarrena, aldiz, Luzaiden. Barrearen onomatopeiak dira biak ala biak. *Ude osue daamak ijili-ajala.* (Uda osoa daramak ijili-ajala). Andres Iñigok (2005, 270 or.) Satrustegiren idatzi batean honela dakar: *"ijili-ajala (Sak)*

adond. 'ondorioak kontuan izan gabe aritu': *Eta zertatik jan? Denak fabrikara! Denak ijili-ajala!* (Urdiain 1969)".

Ikurka-makurka egin/ ibili, Zeharka-meharka ibili, Ttilin-bulun Etxarri Aranatzan, Arbizun eta Ultzaman entzun zitezkeen esapideak ditugu. Sigi-saga egin. Lehena Etxarri Aranatzan eta bigarrena Arbizun (*zierka-mierka*) erabiltzen dira. Azkena, gehienbat, pertsonaren egoerari lotzen zaio. Kulunka, balantzaka, edatearen ondorioz bereziki. Ultzaman *ikur-makurka* gaztelaniako "torcido" adieraziz erabiltzen dela dio Ibarak (1995, 671), gero esaldian bestela idazten badu ere. *Beriaiñe itzotzeko bidie ez ten zuzen-zuzena, ikurke-makurke eitten din!* (Beraiñera igotzeko bidea ez dun zuzen-zuzena, ikurka-makurka egiten din.

Inbusiturik egon Zaraitzun eta Etxarri Aranatzan entzun zitezkeen aditz perifrasiak da. Erabat beteta egon, ezer gehiago kabitzen ez dela. Saturatu, puztu, gainezka egin. *Agitu biar zuena, erriko alor eta baratze guziak satorrez inbusitrik zaudela.* (Gertatu behar zuena, herriko alor eta baratze guztiak satorrez beterik zeudea). *Tokia bordaz beterik, iruriz inbusitrik.* (Tokia bordaz



ARTXIBOA

beterik, iturritz beterik). *Aurten obe San Adriñe ez fatie, jendes inpusittuik yonkuek eta!* (Aurten hobe San Adrinera ez joatea, jendez beterik egongo duk eta!). Honela dakar OEhk, Zaraitzuko adibidea bera erabiliz eta Garraldakoa dela gaineratzen du: *"(...) inbusitu. (Estar)llo, plagado. Agitu biar zuena: erriko alor eta baratze guziak satorrez inbusitrik zeudela.* Garra EEs 1917, 88. (...)"

Iragoturik egon Etxarri Aranazkoa dugu aditz perifrasi hau. Zaharkiturik erabat egon. Gai bati buruz erabiltzen zen, normalean egurra, sutarako ere ez duela

balio esateko Gaztelaniako "obsoleto" kontzeptua azaltzeko balio dezake. Andrex Garmendia Iza etxarriarrak bere ama zen Isidorari hartu zion horrela: *Iguel dek egurroi ez padok botatzen subai, irautuik ziok ta!* (Berdin duk egur hori ez badiok botatzen suari, iragoturik zagok eta). Eibarren altzairuarekin ere erabili izan da: *"iragotu. Revenir el acero después del temple, hasta irisarlarlo. Iragotizu apur bat geixago gubill-zabal au Etxba Eib. Tenplautako erremintxiak iragotzia biar izten dau ez deiñ ausi* Ib. (s.v. iragotzia).

DUELA 25

**Hiriberriko festak**

Festei hasiera emateko etxajua Imanol Erbiti txirrindulariak piztu zuen. Ondoren pilota partida izan zen. Haurrendako jolasak, Bixente akordeoi joleak girotutako errondak, otamena, Tximeletaren dantzaldia eta zezensuzkoak osatu zuten egitaraua. Larunbatean egitura antzekoa izan zen. Aldea futbol partida, ibai ondoko bazkaria eta Sakatriken dantzaldia. Igandean Irurtzun erraldoi konpartsa izan zen herrian. Asteburuko ospakizunak motz gelditu zitzaizkien sentipenarekin gelditu ziren hiriberriarrak.

BASO KUDEAKETA

Sakanako eta Mendialdeko baso baliabideen zentroa

Barrutiko basozainen lantokia Landa Garapen eta Ingurumen Departamenduko kontseilari Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrenak mustu zuen. Irurtzungo Erabidea industrialdean kokatuta, 556,27 metro koadro dituen eraikinaren oinarria zura da. Passivhaus eraikina, ia ez du energia kontsumorik. Aierdik esan zuenez, "tresna bat jarri dugu martxan gure mendien, baso-sektoreko profesionalen eta Sakanako eta Mendialdeko udalerrien zerbitzura".



NAFARROAKO GOBERNUA

HISTORIA MEMORIA

Salinasen berri panelean

Altsasuko Udalak Constantino Salinas Jaca zenaren berri ematen duen informazio panela osasun etxearen ondoan jarri du. Salinas medikua zen eta 1914 eta 1936 urteen artean Altsasun aritu zen. Altsasuko Udalean eta Nafarroako Foru Aldundiko Kudeaketa Batzordeko ardurak izan zituen.



ARTZAIN TZA

Artzain Eguneko hainbat sari sakandarren esku



Artzain Egunean hainbat lehiaketa jokatu ziren. Eta askotan sakandarren lanak aitortza jaso zuen. Hala, gazta lehiaketan Dorraoko Utxama 2. izan zen eta 5. Arruazuko Albi. Utxamakoe, gainera, gazta ekologiko onenaren saria jaso zuten. Jesus Razkinek, Mendi txakurrarekin, txakur txapelketa

irabazi zuen. Latxen morfologia lehiaketan bina sari eskuratu zituzten Unanuko S.C. Baldak eta Olatzagutiko Iñaki Agirrek. Genetika lehiaketan Altsasuko Xabier Zelaiak hiru sari jaso zituen eta Agirrek bi. Ardiki lehiaketan Aralar Mendi, Txapel Azpi eta Gure Etxea 2., 3. eta 4. izan ziren.

HERRI LANAK

Hiru udal eraikinetan konponketak



UDALA

Udako oporrak baliatuz, Irurtzungo Udalak Atakondoa eskola publikoan gimnasioko sabaia berritu eta leiho automatikoak jarri ditu. Bestetik, kiroldegian margotu, azpiegitura elektrikotan berritze lanak egin, aldagelak berritu eta argi automatikoak jartzea eta pistako atea konpondu du. Azkenik, Irurtzungo Udalak Bi Ahizpe frontoiko eserlekuak aldatu ditu, baita hainbat margoketa lan egin ere.



IRAILAK 7-11

- 10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15 Prentsaren azalak
- 10:20 Sakanerria eta kirol tartea Ostegunetan Kulturari begira.
- 10:30 Hizketan
- 11:05 Solasaldia Karrape, Aralar eta Guaixe irratiak
- 14:00 Errepikapena

Hizketan

- Asteartea 7 Beroteaz eta aziendaz artzainekin
- Asteartea 8 Juan Mari Garciandia, harri landu zalea
- Asteazkena 9 Bertso plaza
- Osteguna 10 Elkarriketa
- Ostirala 11 Agenda berezia



FESTAK



Hiriberriarrek festetan mozorrotuta. UTZITAKOA



Buruhandiek harrapatzea nahi ez baduzu... UTZITAKOA



Majo bazkaltzeko aurretik lan egin behar da. UTZITAKOA



Hiriberriarrek festetan herritar guztien talde argazkia egiteko ohitura dute. UTZITAKOA

binaka txandakatzen dira 13:00etatik 15:00etara elkartea irekitzeko: "Publiko guztiarendako irekitzen da, bazkide ez direnendako ere".

Elkartetik plazara, jai giroa

Festetan, Txiterako ohiko antolaketa aldatu egiten da. "Bazkideok eta herritarrok festaz gozatu nahi dugu; horregatik, zerbitzari batzuek elkartea eta plazako txosna alokatzen dituzte". Elkartekideek gutxieneko baldintza batzuk ezartzen badituzte ere, arduradun horiek kudeatzen dituzte zerbitzua eta eskaintza. Orduetegiari dagokionez, gutxi gorabeherako irizpideak adosten dituzte: gaupasa egin, eta biharamunean berriz irekitzen dute, bermuterako; jenderik ez badago, lokala lehenago ixteko aukera dute.

Otorduak ere elkartzeko aitzakia izaten dira. Ostiralean herri bazkaria egingo dute, eta larunbatean, kuadrilla bazkaria; lehenengoan 130 lagun inguru biltzen dira urtero. Elkartean afaltzeko aukera ere badago, baina lekua mugatua denez, mahaia kuadrillen artean zoketatzen dituzte. Elkartearen atzeko aldean parrilla gurgildun bat badago ere; festetan plazara eramaten dute otamena han egiteko. Urtearen gainerakoan, batez ere udan, elkartearen atzeko eremua bazkariak eta parrilladak egiteko erabiltzen dute.

Musika taldeek ostiralean eta larunbatean girotuko dituzte festak; gauero zezensuzkoa egongo da, eta haur jolasak zein puzgarriak ere prestatu dituzte. Larunbatean, gainera, erronda eta mozorro eguna egingo dituzte. "Herriarekin lotura duten pertsona guztiak hurbiltzen dira, eta kanpoko jendea ere etortzen da; nabari da jende gehiago dagoela".

Jaietako diru sarrerekin, nagusiki, festetako gastuak ordaintzen dituzte. Horren guztiaren oinarrian, ordea, auzolana dago. "Elkartek dena ez bada, asko suposatzen du herriarentzat. Herri txiki baten puntu neuralgikoa da; auzolanari esker sortu zen, eta auzolanarekin bizi-rauten du gaur egun ere", nabarmendu du Huartek.

HIRIBERRI ARAKIL

Auzolanean eraikitako herriaren bihotza

Tabernarik ez dagoen Hiriberri Arakilen, Txitera elkartea da herritarren bilgune nagusia. Festetan berebiziko garrantzia hartzen du, eta herriko jai giroa elkartearen eta plazako txosnaren artean banatzen da

Oihan Unamuno Ruiz

HIRIBERRI ARAKIL

"Hiriberrin ez dago tabernarik, eta lokal bakarra Txitera elkartea da; festetan irekitzen da guztiok gozatzeko". Hala azaldu

du Ibai Huarte Gonzalezek, elkarteko juntako eta jai batzordeko kideak, Txiterak herriko ospakizunetan duen tokia. Plazan txosna ere jartzen dute, eta bi gune horien inguruan biltzen

dira hiriberritarrek eta festetara gerturatzen diren bisitariak.

Elkartea 1972an sortu zen, orduko gazteen ekimenez. Kontzejuari etxe bat eskatu zioten, eta auzolanaren bidez hasi ziren

lokala egokitzen. Gaur egun 130 bazkide ditu: herritar gehienak, eta Hiriberrin bizi ez arren, herriarekin lotura estua duten hainbat pertsona.

Txiteraren jarduna, ordea, ez da jai egunetara mugatzen. "Sakanako herri txiki hauetan ez dago leku askorik lagunak elkartzeko, eta horrelako elkarte batek funtzio hori betetzen du", azaldu du Huartek. Urte osoan mahai jokoetan aritzeko, zerbait hartzeko eta bazkariak zein afa-riak egiteko erabiltzen dute. Igandeetan, gainera, bazkideak



Etxez etxeko errondan herri guztiak parte hartzen du. UTZITAKOIA

ETXEBERRI

Etxez etxe, herria elkartzuz

Etxeberriko festak irailaren 4tik 6ra ospatuko dituzte. Egitarauko hitzordurik bereziena larunbateko etxez etxeko erronda da: herritarrek hogeit bat etxetako eskaintzak dastatuko dituzte, trikitilarien doinuek lagunduta

Oihan Unamuno Ruiz ETXEBERRI

Etxeberri 73 biztanle inguru ditu, baina festetan nabarmen handitzen da herriko mugimendua. Senideak eta lagunak bertaraten dira, eta herria elkar-gune bihurtzen da. Aurten ere larunbateko etxez etxekoa izango da ekitaldirik esanguratsuenak. "Guretako festetako ekitaldirik garrantzitsuenak eta politena da", azaldu du Alondra Amoztegi etxeberriarrak, herriko kontzejuko langile eta Etxeberriko jai batzordeko kidea.

Herriko erronda 11:00etan hasten da, nahiz eta puntualtasuna ez den guztien indargunea. "Ostiraleko parranda luzea izan ahal da eta, hasieran, batzuk lo daude". 12:00etarako, ordea, ia

herri guztia kalean dago, trikitilarien doinuez gozatzen.

Etxe bakoitzean geldialdia egiten dute. Bertako familiak janaria eta edaria prestatzen ditu; zerbitzatu ondoren, talde-
ra batu eta hurrengo etxerako bidea hartzen du. Oro har, herriko hogeit bat etxetatik igarotzen dira.

Etxeetako eskaintza, orduak aurrera egin ahala aldatzen da. Hasieran kafea, galletak eta pastak, gozoa. Ondoren, tortilla, pintxoak, gazia. Azken geldialdietan ordea, giroa berotzen doa eta kopak agertzen hasten dira. "Eguna pasatu ahala jendea edaten eta dantzatzen hasten da, eta kubatak hartzen bukatzen dugu beti", dio Amoztegik.

Sakanan aspaldiko ohitura da etxez etxekoa. Etxeberri ez da izan beti larunbatean, garai batean beste egun batean egiten zuten eta arratsaldean edariaren inguruko beste itzuli bat ere bazegoen "erronda kopera" izenekoa; horrek, errondaren funtzionamendu berdina zeukan baina soilik alkola eskaintzen zen. Gaur egun, larunbat goizeko hitzorduari eusten diote soilik.

Ibilbidea despeditzerakoan, ez da giroa bukatzen, urtero 17:00ak edo 18:00ak aldera garbantz lapikokada prestatzen baitute Etxeberriko palazioan. Bazkaria ez da egitarau ofizialean agertzen, eta ordurako askok goserik ez badute ere, gero eta herritar

gehiago elkartzen hasi dira bazkarirako.

Amoztegiren iritziz, errondaren balioa jan-edanetik harago doa. Bere esanetan errondak herriari bizia ematen baitio, auzokideekin hitz egiteko garaia da eta herri osoa elkarrekin egoteko unea. Etxeko helduenak ere opari bat; etxetik gutxi ateratzen dena herri osoarekin egoteko unea baitu. Gazteei goizean jaikitzea kostatzen zaien arren, ohitura ez dela galduko argi utzi du Amoztegik.

Aurten, goitik behera eta zirkuan
Ohituraz, ibilbidea herriaren beheko aldetik hasi eta gorantz egiten zuten. Aurten, ordea, noranzkoa aldatzea erabaki dute

bozketa bidez: goiko etxeetatik abiatu eta beherantz ariko dira.

Mozorroek ere kolorea eman-go diote errondari. Duela bizpahiru urte hasi ziren larunbatean mozzorrotzen. Joan zen urtean pottokiz jantzi ziren; aurten, berriz, zirkua izango da gaia.

Bukatzeko, aipagarria da esatea Etxeberriko festak hamar edo hamabost lagunen artean antolatzen dituztela, bilerak eta auzolana tarteko. Bertan egitarauko ekitaldiak adostu dituzte, bazkari eta afariez gain kontzertu hauek egongo dira: Ostiralean eta larunbatean DJek girotuko dute plaza eta igande arratsaldean, "Duo Iri" bikoteak Mexikoko musika eskainiko du.



Gazte ziordiarrek festetan majo pasako dute. UTZITAKOAK

ZIORDIA

Kartoizko gaua; benetako auzolana

Ziordiko Gazte Asanbladak kartoizko entzierroaren hamargarren urteurrena ospatuko du aurten. Baina asanbladaren jarduerak kirola, musika eta herritarren parte hartzea dituzte ardatz

Oihan Unamuno Ruiz ZIORDIA

Ez dute hats berorik, ezta gana-dutegirik ezagutzen ere. Ziordiko gaueko entzierroko zezenek kartoizko azala dute. Gaztetxetik ateratzen dira festa bete-betean, abiadura baino umore handiagoz: mozkorren entzierroa da. "Ez da benetako entzierro bat: kartoizko zezenak egiten ditugu eta Gaztetxetik ateratzen gara, txantxa moduan", azaldu du Xabier Bengoetxeak, Ziordiko herritar eta Gazte Asanbladako kideak.

Duela hamar urte sortu zen txantxa, baina ez dute urtero egin; gogoia dagoenean ateratzen dute. Igandean 02:00etan hamargarren urteurrena ospatuko dute; asteartean, ordu berean, azken entzierroa.

Biribiltzea

Baina, kartoizko zezenek ez dute irailaren 4tik 8rako festen erritmoa gidatzen, ezta pentsatu ere. Festetako egitarauaren zati handi bat Jai Batzordeari dagokio. Beste zatia ZI.G.A.ri. Gazteek beren jarduerekin biribiltzen dituzte festak.

Ostiralean, gazte poteoaren eta bazkariaren ondoren, bingoa egingo dute eta txupinazora joango dira gero. 20:00etan Gaztetxeko Frontenis Txapelketaren

"Gure helburua festei gure ekarpena egitea da, betiere herritik, herriarentzat ideiari jarraituz"

bigarren edizioko finala jokatu-ko dute; 23:00etan, berriz, tekno gaua hasiko da, ibarreko hainbat artistekin batera, esaterako, Mikel Azpiazu, Morti, Guridi, Apao edo Deathbass DJ.

Larunbatean ElektroKela elektrotzaranga, Zopilotes Txirriaos taldea eta Muxutruk erromeria-ekin jarraituko dute festa. Eta astelehenean karaokearekin kantuan ibiliko dira gaztetxean.

Gaztetxean Jai Batzordeak prestatutakoa aztertu, ideiak asanbladan proposatu eta auke-
rak elkarrekin neurtzen dituzte. "Denen artean erabakitzen dugu zer antolatu". Eta festak antolatzeko hilabete bat lehenago hasten badira ere; frontenis txapelketak, aldiz, hainbat hilabeteetako prestaketa dauka.

HIRIBERRI ARAKIL

FESTAK

OSTIRALA 4

12:30 Trikipoteoa.
14:00 Herri argazkia.
15:00 Herri bazkaria.
16:30 Musa eta partxisa.
18:00 Ginkana.
20:00 Otamena.
20:30 Atrikipunk erromeria.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30 Atrikipunk erromeria.
04:30 Gaupasa Txiteran.

LARUNBATA 5

12:00 Jolasak, plazan.
13:00 Iturmendiko dantzariak.
14:00 Kuadrilla bazkaria.
16:30 Puzgarriak.
17:00 Erronda eta mozorroak.
20:00 Otamena.
20:30 Trikiteens.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30 Trikiteens.
02:00 Aulkien jolasa.
04:30 Gaupasa Txiteran.

IGANDEA 6

12:00 Puzgarriak.
13:00 Jarauta 69 txaranga.
17:30 Txokolate jatea eta musika, plazan.
18:30 Bingoa.
20:00 Otamena.



ARTXIBOA

ETXEBERRI

FESTAK

OSTIRALA 4

10:00 Hamarretakoa.
14:30 Txupinazoa.
14:30 Herri paella.
17:00 Bingo musikala.
17:00 Aurpegi margoketa.
19:30 Korri, harrapatzen zaitudala!
20:00 DJ Oixanirekin dantzaldia.
21:30 Herri afaria.
00:00 DJ Oixanirekin dantzaldia.
04:30 Aulkien jolasa.



ARTXIBOA

LARUNBATA 5

11:00 Etxez etxeko erronda.
17:30 Herri kirolak.
19:30 Korri, harrapatzen zaitudala!
20:00 DJ On Fiestarekin dantzaldia.
21:30 Pintxo pote eta pausu bat atzera.
23:30 DJ On Fiestarekin dantzaldia.
04:00 Aulkien jolasa.

IGANDEA 6

11:00 Pilota partiduak.
14:30 Herri bazkaria.
17:00 Duo Ilyaren kontzertua.
19:00 Korri, harrapatzen zaitudala!
19:15 Txokolate jatea.
19:30 Gaztaren jokoa.
19:30 Urdaiazpiko, kamisetak eta diskoaren zozketa.

ASTEARTEA 8

12:00 Meza.
13:00 Herri bazkaria.



ZIORDIA

FESTAK

OSTIRALA 4

13:00 Gazte poteoa, gaztetxean.
15:30 Herri bazkaria, gaztetxean.
Gaztetxeak antolatuta.
17:00 Bingoa. Gaztetxeak antolatuta.
19:00 Txupinazoa eta kanpai errepika, udaletxean.
19:10 2025ean jaiotako hurrei zapia jartzea eta herriko helduei omenaldia, udaletxean.
19:15 Playback: herriko hurrek prestatutako koreografien dantzaldia, udaletxean.
19:30 La Cigarrilla txaranga.
20:00 Fronteniseko II.
Txapelketako Finala, frontoian.
Gaztetxeak antolatuta.
21:30 Herri afaria, plazan.
23:00-02:00 Bizi iraun erromeria, plazan.
23:00 Tekno gaua, gaztetxean: Mikel Azpiazu, Morti, Guridi, Apao eta Deathbass. Gaztetxeak antolatuta.
02:00-04:30 DJ Boletus, plazan.



ARTXIBOA

LARUNBATA 5

13:00 Sakana Kantuz kontzertua, herrian zehar.
16:00 Txirrindularitza proba.
Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta.
19:00 Etorkizuna dantza taldearen emanaldia, plazan.
20:00 Auzatea eta japoniar bonbak, plazan.
20:00 Elektrokela elektrotxaranga, herrian zehar.
Gaztetxeak antolatuta
22:00 Zezensuzkoa, herrian zehar.
23:00-01:00 Los Zopilotes taldearen kontzertua, plazan.
Gaztetxeak antolatuta,

01:30-04:30 Muxutruk erromeria, plazan. Gaztetxeak antolatuta.



ARTXIBOA

IGANDEA 6

12:00 Lopenean ganadutegia, parkean.
13:30 Haize Berriak bandaren kontzertua, plazan.
18:00 Xaibor, plazan.
20:00 Auzatea eta japoniar bonbak, plazan.
20:00 Trasteando taldearen kontzertua, plazan.
22:00 Zezensuzkoa, herrian zehar.
00:00-03:00 DJ Txumari, plazan.
02:00 Entzierroaren X. urteurrena.
Gaztetxeak antolatuta.

ASTELEHENA 7

HAURREN EGUNA

12:00-14:00 Atracciones Sanz haur jolas parkea.
14:00 Haurren bazkaria, elkartearen.
16:00-18:00 Atracciones Sanz haur jolas parkea.
19:00 Paella txapelketa, plazan.
20:00 Auzatea eta japoniar bonbak, plazan.
22:00 Zezensuzkoa, herrian zehar.
00:00-03:00 DJ Txumari, plazan.
03:00 Karaokea, gaztetxean.
Gaztetxeak antolatuta

ASTEARTEA 8

12:00 Meza, eliza.
12:30 Jubilatuen luntxa, Urbasa tabernan.
13:00-14:30 Txutxin Ibañez y los Charros, plazan.

17:30 Herriko promesak pilota partiduak, frontoian.
20:00 Auzatea eta bonba japoniarrak, plazan.
20:00-21:30 Joselu Anaiak, plazan.
21:00 Zezensuzkoa, herrian zehar.
21:30 Herri afaria, plazan.
22:00-23:30 Joselu Anaiak eta gaixoa ni, plazan.
02:00 Azken entzierroa, gaztetxeak antolatuta.
04:00 Festetan eroritakoei omenaldia. Gaztetxeak antolatuta.



ARTXIBOA

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko ETXEBERRI ARAKIL libre!

HAJETAN EMAN DAUTEKEEN INDARKEGIA MITXISTAREN ALIBREAN
SALAKETA ETA ARRETA TELEFONOA

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko HIRIBERRI ARAKIL libre!

JARAIN!
Eraso sexistarik gabeko ZIORDIA libre!



Irañetako kartel lehiaketara marrazkiak aurkeztutakoek saria jaso zuten. UTZITAKOA

Ihabardarrak zirkua moztarrotzeko aitzakia gisa hartu zuten festetan. UTZITAKOA

ALTSASU FESTAK

OSTEGUNA 10

10:30 2025eko kintari harrera, zapien janzea eta kintaren lehen argazkia, udaletxearen aurrean.
10:30 Altsasuko peñek eskainitako hamaiketako, Foru plazan.
11:30 2026ko festetako kartel lehiaketaren sari banaketa, Gure Etxean.
12:00 Festa eztanda handia! Txistulariak, gaita jotzaileak, erraldoiak eta peñen kalejira, Gure Etxearen aurrean.
12:30 Sakana Kantuz, Foru plazan.
13:30 Erraldoi eta buruhandien etorrera, Foru plazan.
15:00 Preso eta iheslari politikoaren aldeko bazkaria, karpan. AJB Altsasuko Jai Batzordeak antolatuta.
16:15 Elkartasun brindisa, karpan. AJBk antolatuta.
16:30-20:00 Peñen kafea eta kalejira Txorongo Txarangarekin, Foru plazatik.
18:00 Apar festa, lortia zabalgunean.
18:00 Kuadrillen Eguneko lehenengo proba, gaztetxean. AJBk antolatuta.
19:30 Buruhandiak, Foru plazan.
19:30-21:30 Aliados Orkestrarekin dantzaldia, Foru plazan.
20:30 Peñen jaitsiera Txorongo

txarangarekin, Zumalakarregi plazatik Foru plazara.
Ondoren, Altsasuko zortzikoa Burundar txistulariekin eta Larrain dantza Etxarri Aranazko gaiteroekin.
Ondoren, zezensuzkoa, Foru plazan.
22:00 Elektrokutau Elektrotxaranga. AJBk antolatuta.
23:30-02:30 Aliados Orkestrarekin dantzaldia, Foru plazan.
00:00 Djak, karpan: Boletus Rumberus eta A.M. Hours. AJBK antolatuta.



ALTSASU

IRAILAK 11 AJBREN PEÑEN EGUNA

09:30 Fandabila txarangarekin dianak, herriitik.
11:30-14:30 Txiki Parka eta Txu Txu trena, lortia zabalgunean.
12:00 Auzatea Zubeztia elkarteak eskainia, Foru plazan.
12:00 Aizkora apustua, AJBren txoznan. AJBk antolatuta.
13:00 Aiurri ikuskizuna Aukeran dantza konpainiarekin, Foru plazan.
15:00 Makarroi jatea, karpan AJBk eta Altsasuko Peñak antolatuta.
16:00-19:00 Txiki Parka eta Txu Txu Trena, lortia zabalgunean.
16:30 Peñen kafea.
17:00 Elkartepotea eta Kuadrillen Eguneko bigarren proba. AJBk antolatuta.
17:30 Erremontari herriz herri erremonte jaialdia, Burunda pilotalekuan.
18:00 Xaiborrekin disko festa, Gartzia Ximenez kalean.
19:30 Buruhandiak, Foru plazan.
19:30 Me vale madre musika emanaldi ibiltaria, Foru plazan zehar.
20:00 Peñen jaitsiera Txaranga Txorongorekin, Zumalakarregi plazatik Foru plazara.


Ondoren, Altsasuko zortzikoa Burunda Txistulariekin eta Larrain Dantza Etxarri Aranazko gaita jotzaileekin.
Ondoren, Zezensuzkoa.
21:00 Bokata jatea, AJBren txoznan. AJBk antolatuta.

23:00 Kontzertuak, karpan: Skaregekasko eta Seditos de Cumbia. AJBk antolatuta.
23:30 Nocturnal Amaral taldeari omenaldi kontzertua, Foru plazan.
00:00-05:00 DJ.

ALTSASUKO TXUPINAZOA ZUZENEAN

GOIZEAN ZEHAR
Jarraipena
www.guaixe.eus-en

11:45ETIK AURRERA
Zuzeneko emanaldia
Guaixe eta Festaroren eskutik
www.guaixe.eus-en



Maitane Vilariño denboraldian murgildua dago, Athletic taldearekin. Igandean Logroño United dute aurkari. ATHLETIC CLUB

FUTBOLA

Futbolarien dantza

Oier Gastesik eta Joseba Perezek talde berrietan jokatu dute. Aldiz, Maitane Vilariñok eta Irati Igoak talde berberetan segituko dute. Talde nagusietako harrobietako futbolari sakandarrak dagoeneko lanean daude

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

2026/2027 futbol denboraldia martxan dago kategoria batzuen dako, eta beste batzuk hastear daude. Emakumeen futbol profesionalean ez da aldaketarik egon, baina gizonetakoetan, ordea, nobedadeak daude. Kluben harrobietan, zer esanik ez.

Oier Gastesi Serrano (2003-10-30, Altsasu) 2022. urtetik Athletic-eko atezaina izan da. Athletic-eko jubeniletan, hirugarren mailako Baskonian, Bilbao Athletic-en eta lehen mailako Athletic-en jokatu izan du. Iaz 1 RFEF mailako Getxoko Arenas Club-ean jokatu zuen, utzita. Aurten, ordea, bide luzeagoa hartu du; Athletic-ekin zuen kontratua despedituta, Teneriferekin fitxatu du urte baterako, Tenerifeko bigarren taldean jokatzeko, 2 RFEF mailako CD Tenerife B taldean. Hain zuzen

ere 2 RFEF mailako denboraldia hastear dago. Lehen jardunaldian Tenerife B-k Badajozen kontra jokatu du igandean, Badajozen (12:00).

Joseba Perez Fernandez jokalaria (2008-03-05, Lakuntza) 2022an fitxatu zuen Villarreal taldearekin. Kadeteen eta juniorren mailan aritu zen Villarrealen, eta Valentziako selekzioan ere bai. Hegaleko jokalaria ezkerrean iaz kontratua bukatzen zitzaien, eta Betis taldearen eskaintza onartuta, azkeneko denboraldian Ohorezko Mailako Betis taldearekin aritu zen. Aurten aldaketa egin du Logroñes taldera. Estatuko Ohorezko mailako Jubenil mailan jokatu du, Logroñesekin.

Vilariño eta Igoa, mugitu gabe
Gure emakume futbolari profesionalek euren taldeetan segituko dute aurten. Maitane Vilariño Mendinueta (2002-06-30, Olazti) 2027ra arte sinatu zuen Athletic-ekin, eta hirugarren denboraldia du Lezaman. Liga F edo lehen mailako Athletic Club taldeko aurrelariak dagoeneko 2026/2027 denboraldiari ekin dio. Lehen jardunaldian Athletic Clubek 3-1 hartu zuen mendean Levante Badalona Lezaman jokatuak partidaren, eta Vilariño titularra izan zen. Bigarren jardunaldian Logroño bidea hartu du Athletic-ek, igandean, 18:30ean, Las Gauna-

tuko dute aurten. Maitane Vilariño Mendinueta (2002-06-30, Olazti) 2027ra arte sinatu zuen Athletic-ekin, eta hirugarren denboraldia du Lezaman. Liga F edo lehen mailako Athletic Club taldeko aurrelariak dagoeneko 2026/2027 denboraldiari ekin dio. Lehen jardunaldian Athletic Clubek 3-1 hartu zuen mendean Levante Badalona Lezaman jokatuak partidaren, eta Vilariño titularra izan zen. Bigarren jardunaldian Logroño bidea hartu du Athletic-ek, igandean, 18:30ean, Las Gauna-

Gastesi Tenerifera joan da, eta Perez Logroñesera;
Vilariño eta Igoa ez dira mugitu

sen Logroño United taldearen kontra aritzeko.

Irati Igoa Sesmak (2001-03-29, Etxarri Aranatz) emakumezkoen Osasuna talde nagusiarekin 2028ra arteko kontratua du. Osasunak 1 RFEF mailan jokatu du eta Etxarri Aranatzko aurrelaria taldeko pieza nagusietako bat da. Taldeak iaz ez zuen Liga F edo lehen mailara igotzea lortu, eta aurten enegarrenez saiatuko da ekinaldi honetan. Momentuz lagunarteko partidak jokatu ari da Osasuna -abuztuaren 29an Zaragozari 1-4 irabazi zioten gorritxoek-, eta 1 RFEF mailari irailaren bigarren asteburuan ekingo dio. Lehen jardunaldian Osasunak Real Madrid B hartuko du Taxoaren, irailaren 13an, 12:00etan.

Harrobiak, bizi-bizi

Harrobietako mugimendua, betiko moduan, bizi-bizia da. Egon diren bestelako mugimenduen artean, Athletic Club-ek Danel Agirre Baz kadetea (2011-01-19, Etxarri Aranatz) fitxatu du eta gazteak Lezamako bidea hartu du, kadeteen Euskal Liga mailan Athletic-ekin erdilari jokatzeko. Osasunari dagokionez, Aitor Saralegi Nagore defentsak (2007-11-22, Irurtzun) Osasunako hirugarren taldean, 2 RFEF mailako Subizan jokatu du, eta Djiby Diouf erdilariak (2008-01-01, Lakuntza) ere bai. Luar Nagore Etxarte atzelaria (2009, Irurtzun) Osasunako Valle de Aranguren jubenilen taldean dago. Bukatzeko, Julen Estarriaga Villarreal (2013-09-20) Osasuna taldeko jokalaria izango da harrobian, Txantrean aritu eta gero.

Bestalde, Adei Mendinueta Perez de Villarreal defentsak (2008-01-08, Arbizu) Logroñes taldeko jubenilen taldean jokatu du. Aipatutakoez aparte, makina bat sakandar dago bestelako maila eta kategorietako taldeetan.



Oier Gastesi Tenerifen ari da. UTZITAKOA



Etxarri taldeen aurkezpena

Etxarri Aranatz Kirol Elkartek denboraldi hasierako festa egingo du bihar, larunbata, San Donato zelaian. 11:00etan klubeko talde guztien aurkezpena egingo da, eta 12:00etan Etxarri erregionalaren eta beteranoen arteko partida. Atsedendian, bingoa.

Denboraldi aurea, bolo-bolo

Denboraldia hasi bitartean, lagunarteko partidetan murgilduta daude gure taldeak. Gaur, ostirala, Lagun Artea erregionalak Subizaren kontra jokatu du Sotoburun (19:30), eta larunbatean Lagun Artea jubenila Alegriaren kontra ariko da Dulantzian (10:00). Igandean Lagun Arteako infantilek Beti Kozkor hartuko dute Zelai Berrin (12:00).

Larunbatean Hiru Lurralde Txapelketa jokatu da Dantzalekun. Altsasuk, Salvatierrak eta Beasain taldeek triangeluarra jokatu dute. Bestalde, Altsasu kadeteek Etxarri Aranatzekin kontra lagunartekoa dute jokoan igandean San Donaton (11:30).



2024ko Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalistak. ARTXIBOA

PILOTA

Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketaren itzulera, Altsasun

Baleztena, Sagastibeltza eta Irribarria-Goikoetxea finaletan daude. Larunbatean erabakiko dira beste finalistak, Burundan

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Iazko etenaren ondoren, bueltan da Altsasuko afizionatuen mailako Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketa prestigiotsua. Aurtengoa txapelketaren 54. edizioa da, eta Pilotajauku klubak antolatu du, Altsasuko Udaren eta hainbat babesleren laguntzarekin. Hiru mailatan jokatzen ari da: jubenilen lau eta erdian, promesen lau eta erdian, eta eliteen mailako binakakoan. Txapelketak bi finalerdi ditu, eta irailaren 13an festetan jokatuko den finala.

Lehendabiziko finalerdiak larunbatean jokatu ziren. Jubenilen lau eta erdian, Etxaniz gipuzkoarrak, Guillermo Mazo Torneoko txapeldunordeak, sekulako erakustaldia egin zuen eta 4-22 gailendu zitzaion Baleztena nafarrari. Promesen lau eta erdian, Sagastibeltza leitzararak alde handiz hartu zuen mendean Igoa, 22-7. Azkenik, eliteen binakakoan, Irribarriak eta Goikoetxeak 22-13 hartu zituzten mendean Astiz eta Bernaola. Irribarriak eta Goikoeetxeak ikaragarritzko hasiera egin zuten, 16-4 jarri baitziren aurretik. 10-leko partzialarekin 17-13 hurbildu ziren Astiz eta Bernaola, baina Irribarriak eta Goikoeetxeak arnasa hartu, eta bost tanto egin zituzten segidan, 22ra zuzenean iritsiz (22-13).

Bigarren finalerdiak, bihar

Bihar, irailak 5, larunbata, txapelketako bigarren finalerdiak

daude jokoen Burunda pilotalekuan (18:00). Jubenilen lau eta erdian Paraguayo errioxarrak Anzizar nafarra izango du aurkari. Promesen lau eta erdia bi pilotari nafarren arteko lehia izango da, Olza Zabaletaren kontra. Azkenik, eliteen mailako binakakoan Eiguren eta Goiburu gipuzkoarrek Etxeberria gipuzkoarra eta Santesteban nafarra dituzte arerio. Partida borrokatuak espero dira.

Olaztiko II. Mikel Deuna, abian

Joan zen urteko arrakasta ikusita, Olazti eta Ziordiko Goxua taldeak atzera ere txapelketa antolatu du San Miguel festen harira: Olaztiko II. Mikel Deuna Goxua Txapelketa. Irailaren 4an eta 11n jardunaldi bana jokatuko da, irailaren 18an finalerdiak, eta irailaren 25ean finalak.

Gaur, ostirala, emango zaio hasiera txapelketari. Lehen jardunaldia 20:30ean hasiko da jokoan, Olaztiko pilotalekuan. Hurrengo partidak jokatuko dira: Arakama-Donlo vs Imaz-Usabiaga; Bizuete II-Bizuete vs Laka-Ekhi; Senar-Mendiluze vs Azanza-Lander, eta Agirre-Aldaz vs Sarazibar-Razkin.

Gaur, ostirala, Olaztiko II. Mikel Deuna Goxoa Txapelketari hasiera emango zaio

PILOTA

"Bizitza erdia pilotari izateak noski merezi izan duela; asko ikasi dut"

ALBERTO ONGAY TERE PILOTARI OHIA

Satrustegiko aurrelariak agur esan dio pilotari. Asperekin profesional izan zen bost urtez, baina bere ibilbide gehiena Irurtzun klubean egin du, afizionatuetan

Maidar Betelu Ganboa SATRUSTEGI Alberto Ongay Tere pilotariak (1985-12-31, Satrustegi) jaioterrian esan zion agur pilotari, Satrustegiko festetan. Asperekin profesional izan zen 2008tik 2013ra, baina afizionatuen mailan gozatu du gehien pilotarekin. Orain beste kirol batzuekin gozatu nahi du.

Bizitza erdia frontoietan, aurrelari. Aitari pilota asko gustatzen zaio. Berak eraman ninduen Irurtzongo Pilota klubera, 7 urte nituela. Astean bi egunetan joaten nintzen, eta gero Satrustegiko orduko frontoi txikian aritzen nintzen. Satrustegi herri txikia izaki, nire kintako bakarra nintzen. Pilota beti poltsikoan izaten nuen, eta frontoian pilotatzeraz joaten nintzen, sarritan bakarrik. Haur bat bakarrik frontoian aritzea, gaur egun, ia pentsaezina da.

2007. urtea gakoa izan zen. GRAVN Txapelketa irabazi zenuen, Errege Kopa, Munduko Kopa eta Nafarroako Buruz Buruko txapelduna izan zinen. Zure booma izan zen.

Ordura arte kategoria guztietan nahiko ongi jokatzen nuen, baina abenduakoa izaki, maila bakoitzean beti txikiena nintzen eta pixka bat atzetik ibiltzen nintzen. 18-19 urte nituela pilotan jokatzeaz aparte, korrika hasi nintzen, 10 kilo galdu, eta gorputza egin nuen. Afizionatuetan ongi hasi nintzen, emaitza onak lortu, eta 2008an Asperekin debutatu nuen.

Irurtzunen debutatu zenuen, 2008ko otsailaren 29an, Oscar Lasa bikote zenuela, Capellanen eta Zubietaren kontra (22-17 galdu). Profesionalera heltzea sekulakoa izango zen zuretako.

Hori da kanpotik pentsatzen dena. "Gutxienez debutatu zenuen" esaten didate. Baina argi esango dizut: profesionala

bost urte horiek, pilotari gisa, nolabait itzali ninduten. **Emandako salto horretan zer aldatu zen gehien?**

Debutatu baino lehen, afizionatuetan, oso ongi aritu nintzen. Hasieran batez ere Nafarroan jokatzen nuen, baina emaitza onak zirela eta, Gipuzkoa, Bizkaia eta bestelako torneoeetatik deitzen hasi ziren. Eta nabarmentzen hasi nintzen. Torneo asko irabazi nituen. Debutatu aurreko urtea izan zen pilotan zapore onena izan zuena. Soilik pilotan jokatzea nuen buruan; beste guztiak ez zidan axola. Pilotan disfrutatzen nuen. Baina enpresa profesional batean debutatzen duzunetik, kontratu bat dago tartean, eta hortik aurrera pilota zaletasuna izatetik lan moduan ikustera pasatzen da. Aldi berean, enpresa barruan gauza asko ikusten dituzu, gauza onak eta txarrak, batzuek gustuko ez dituzunak, eta horrenbeste gustuko duzuna, pilota, bigarren maila batean geratzen da, albo-ratuta. Eta pilotaz ez duzu erabat gozatzen. Gainera, gutxiago jokatzen nuen. Afizionatuetako azken urtean ia 90 partida jokatu nituen, eta profesionala 40-50 inguru. Enpresak jartzen dizkizu partidak, berak nahi dituenak, eta jaialdi politenak, agian haiek jokatzea merezita, ez dizkizute programatzen, hala nahi badute. Presioa oso handia izaten da.

Beraz, ez da dirudien bezain polita. Inola ere ez.

"Profesionala bost urte horiek, pilotari gisa, nolabait itzali ninduten"

Pilota kirol indibiduala izaki, halako egoerari buelta ematea gogorragoa izango zen.

Pilota mundu oso txikia da. Maila profesionala bi enpresek kudeatzen dute. Nik debutatu eta berehala krisia hasi zen. Bi enpresek, bakoitzak berera begiratu ordez, horrela konpetentzia pixka bat egongo zelako, pilotariendako mesede, bat egin zuten. Pilotan ez dago gutxieneko soldatarik, futboleko eta beste kirol batzuetan dagoen bezala. Pilotari bakoitzak bere kontratuarengatik borrokatu behar izaten zuen. Agian taldekide batek zuk baino lau aldiz gehiago kobratzen zuen. Pilota mundu itxia da, enpresek dena kontrolatzen zuten eta nahi zuten egiten zuten. Ez genuen ezer egitekorik.

Egoerak zure jokoan eragina izan al zuen?

Jakina, ez dut inolako zalantzarik. Hasieran bi urtetarako sinatu nuen, eta gero urtero joan nintzen kontratua berritzen. Eta horretarako maila erakutsi behar nuen. Ikusten nuen Binakakoan ez nindutela lagunduko, eta beste txapelketaren batean booma izan behar nuela argi nuen. Zenbait txapelketetan zorte txarra izan nuen. Zenbaitetan, gainera, txapelketa batzuk jokatu behar nituela berandu abisatu zidaten, azken orduan, eta presio gehiagorekin ateratzen nintzen. Urteak urtera txapelketetan presioa handiagoa zen, eta ez nuen nire %100 ematen, urtean barna ez nuelako gehiegi jokatzen eta erritmo falta nabaritzen nuelako. Lesioen bat izan nuen tartean. Tokietan ondo hastea garrantzitsua izaten da, eta zor-tea alde izatea, zer esanik ez. Eta ez nuen izan. Gauza bat edo bestea zela, azkenean ez nuen emaitza garrantzitsurik bildu.



Alberto Ongay, gurasoekin eta arrebarekin, pilotaren despedidan. UTZITAKOA

Kontratua berritu ez izana gogorra izan al zen?

Hasieran erabakia onartzea kostatu egin zitzaidan. 27 urterekin pilotara jokatzeko onenean nengoela sentitzen nuen, eta kontratua ez berritzea... Partida gehiago jokatzeari behar nuen, erritmoa eta jarraikortasuna lortu eta hobeki jokatzeko, baina ez zen hala suertatu eta ezin izan nuen nirea erakutsi. Mundu horretan interes handiak daude. Bazeuden pilotari batzuk eskuko mina zutela azalduz astean zehar entrenatzen ez zutenak, baina bulegora deitu eta asteburuan programatzen zituztenak. Nik aldiz, ez nuen entrenamendurik galtzen eta zenbait asteburutan, jokatu gabe. Atzera begiratuta, nire aldetik zenbait erabaki aldatuko nituzke, baina horren kirol bakartia da... Giro hori ezagutzen duen norbaitek hasie-

ratik gidatuko banindu, kontratuak lotzen, prestaketan, elikaduran, zenbait erabaki hartzen... hobeto ariko nintzateke, baina ez dago atzera bueltarik.

Afizionatueta hasi zinen berehala. Halako egurkadaren ondoren, pilota uzten dute askok, baina pilota oso gustuko dudanez, Irurtzongo fitxarekin afizionatueta segitu nuen, gaur egunera arte.

Erreferente handia izan zara afizionatueta; garaipen handiak dituzu. Afizionatueta ongi aritzeko prestaketa handia behar da, eta lehiakorra naizenez, beti ongi prestatuta egoten saiatu izan naiz. 27 urte nituen, maila onean nengoen, eta final ia guztietan sartzen nintzen. Partida asko jokatzen nituen, eta berritro pilotan disfrutatzen hasi nintzen. Mekatronika ikasketekin, lanean hasi nintzen, baina pilotarekin ongi uztartu izan dut.

2014an Munduko Txapelketako Buruz Burukoa irabazi zenuen Mexikon, Momo Medinari irabazita. Zure lorpen kuttunenetakoa al da?

Ez, beste asko egon dira. Mundiala zelako, Mexikon jokatu zelako eta Momo Medina oso ongi ari zelako agian aipatzen da gehiago, eta 3000 metroko altueran jokatzeko handicap-a zuelako, baina 2018an Bartzelonan jokaturako Mundialean ere Buruz Buruko txapelduna izan nintzen. Bestalde, profesionaletatik atera berri Uharteko Lau eta Erdia irabazi nuen, bi aldiz irabazi dut txapelketa hori, eta Elkar Pilota txapelketako finala irabazi nion Lasori. GRAVNI-ak irabazi ditut, Nafarroako Txapelketa eta beste.

Irurtzun klubarekin, talde gisa, lorpen handiak dituzu.

Bai. Espainiako Kluben Arteko Txapelketa irabazi genuen, Bi-

nakakoa, Iosu Bergerarekin. Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa uste dut bitan irabazi genuela, eta iaz, 2025ean, Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa irabazi genuen. 19 urte nituela Irurtzunekin Herrien Arteko finala jokatu nuen; Lizarraren kontra galdu egin genuen, baina 20 urte geroago, iaz, bigarren finalean Leitzari irabazi genion. Bizitzaren kasualitateak. **40 urterekin, eta gorenean, bazoaz. Garaia al zen?**

Bizitzaren faseak dira. Garfen ere urte batez aritu nintzen, baina orduan zuten politika ez nuen gustuko, eta Irurtzun klubean jarraitu dut beti. Lehiakorra naiz, lehiatzea gustuko dut eta azkenaldian ez didate txapelketa askotan jarri. Entrenatzeko erronka baten beharra dut, txapelketa bat, eta horren faltan, nahiago uztea. Hala ere, egunen batean iritsi beharra zuen.

Pilotari bizitza erdia eskaini diozu. Mereziz izan al du?

Noski merezi izan duela. Kirol batean aritzean asko ikasten duzu: zure burua gehiago zaintzea, sakrifizioa eta konpromisoa lantzea, jendearekin harremanak... Jende asko ezagutu dut, pilotari asko, Nafarroako herri gehienak, lagunak egin ditut, bi Mundialetan parte hartu dut, horietako bat Mexikon, Asperekin Californiara joan nintzen... Kirolarekin asko ikasten duzu, munduan zentratzen laguntzen dizu. Gazte guztiek kirolaren bat egin beharko lukete.

Pilotari lotuta jarraituko al duzu?

Etorkizunean nork daki, baina une honetan pilotatik aldentzeko beharra dut, deskonektatzeko eta airea hartzeko. Bizitza guztia daramat kirola egiten, behar hori dut, eta orain gimnasioan, bizikletan eta mendian aritzeko asmoa dut.



Iaz, Herrien Artekoan. FEDERAZIOA

Agur ederra Satrustegiko festetan

Irurtzongo festetan omenaldia egin zioten Alberto Ongayri. Irurtzun pilota klubak antolatu zuen, eta klubeko pilotari guztiak batu ziren omenaldira. Bere azkeneko partida, ordea, jaioterrian jokatu nahi izan zuen Ongayk, Satrustegiko festetan. Abuztuaren 14an izan zen, eta omenaldi ederra prestatu zioten herritarrek. Ongayk suzuria jaurti, eta ondoren pasilloa egin zioten, pilota partida, txapela oparitu... "Oso omenaldi polita izan zen. Txapela berezia oparitu zidaten, ohikoetatik ezberdina. Ilusio handiz hartu zuen. 50 biztanle gara, eta gehienak bildu ziren. Plazatik frontoiraino pasilloa egin zidaten. Iosu Bergerak, Adrian Azpirozek, Aaron Arbizuk... urte luzez bikote izan ditudan kideek agurrean egon nahi izan zuten, baina Garferekin partidak zituzten eta ezin izan ziren etorri. Salaberria anai bikien atzelariarekin osatu nuen bikotea, Salaberria aurrelariaren eta Jon Lazkoz arbizuarren kontra aritzeko. Oso partida polita atera zen, 22-20 irabazi genuen" du gogoan. Familiarekin eta herritar guztiekin argazkia atera, eta festa giro alaiaren ospatu zuen agurra.



Satrustegiko herriak omenaldi polita eta hunkigarria egin zion Alberto Ongayri, iaz mustutako frontoian. UTZITAKOA

LABURREAN

Ekai Erdoziaren bigarrena Ibarren

Ekainean Galarren lortutako garaipen bikainaren atzetik, Sakana Group-Aralar taldeko Ekai Erdozia txirrindulari etxarriar juniorrak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen, larunbatean Ibarako San Bartolome lasterketan gailendu eta gero. Sakana Group taldeak pozik ospatu zuen lorpena.

Mikel Uncillaren hirugarrena Sopelan

Abuztuaren 8an afizionatuen Lehendakari Txapelketarako baliagarria den Sopelako Udalen XII. Saria jokatu zen (114,6 km). Rural Kutxa-Aleako Mikel Uncillak lasterketa bikaina egin zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara, denboraldiko hirugarren garaipena lortuta. Etxarriarra sasoi betean dago.

Enduro Sprint Txapelketa Irañetan

Igandean Enduro Sprint Irañeta antolatuta dute, Nafarroako Txapelketarako baliagarria. 18 urtez azpikoak, juniorrak, seniorrak eta mastersak ariko dira. 8:00etan egiaztapenak egingo dira, 9:45ean pilotuen briefing-a eta 10:00etatik aurrera abiatuko da lasterketa.

IRRISTAKETA

Dantzalekuko irristaketa eta txirrindularitza pista berria, bidean

Lanak berriki hasi dira eta enpresak hiru hilabeteko epea du pista bukatzeko

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Altsasuko Dantzalekuko igeriketa, futbol eta atletismo kirol instalazioei beste bat gehituko zaie: irristaketa eta txirrindularitza pista. Dantzalekuko hareazko futbol zelai zaharra zenean egingo da, futbol 7 zelai artifizialaren eta Dantzalekuko futbol zelai eta atletismo pistaren artean. Sakana Patin irristaketa klubeko eta Burunda Txirrindularitza Taldeko aspaldiko eskaria da, eta lanak hasi berri dira. Altsasuko Udalak Lakita enpresari eman dizkio pista egiteko lanak, 263.501,88 euroko aurrekontuan. Enpresak hiru hilabeteko epea du lanak bukatzeko. Aipatu lanekin batera futbol zelai zaharrean zeuden aldagela zaharrak, "bunker" ezinenarekin ezagunak, eraitsiko dira. Horretarako aurrekontuen moldaketa egitea onartu zuen Altsasuko Udalak azkenean udalbatzan, 48.376,90 eurokoa, BEZ barne. Aldagela zaharren egoera tamalgarria da, eta segurtasunagatik hartu da erakina eraisteko erabakia. Guztira, beraz, 311.877 euroko inbertsioa egingo du Altsasuko Udalak. Nafarroako Gobernutik 65.000 euroko dirulaguntza jaso da, Geroa Baik Nafarroako Aurrekontu Orokorrei egindako emendakinari esker.

Denboraldi berrirako pozarren

Sakana Patinen eta Burunda Txirrindularitza klubean erabakiarekin pozarren daude. Ez



Makinak lanean daude Dantzalekun, irristaketa eta txirrindularitza pista egiten.

da gutxiagorako. "Urteak daramatxagu pista eskatzen, Sakanan baldintzetan entrenatu ahal izateko, gaur egun Iruñera joaten baikara. Oso pozik gaude" nabarmendu du Sakana Patin taldeko arduradun Oscar Zamarronek.

Enpresak lanak egiteko duen epea kontuan hartuta, aparteko arazorik gertatzen ez bada pista azarorako bukatuta egongo da. "Halako lanak delikatuak izaten dira, bihurguneetako peralteak eta asfaltatze finak ez baitira eguneroko lanak, baina espero dugu dena ongi joatea eta kalitatezko pista izatea". Izan ere, hori da garrantzitsuena, pista ohiko entrenamenduetarako eskuragarri izatea. "Ikasturte honetan pista errealtatea izango da, eta horrek klubari bizi asko emango dio, eta etorkizuna" argi du.

Zamarronek gaineratu duenez, irailean denboraldiko bigarren zatia ekin diote Sakana Patin taldean. "Txikienek udan festa izan dute, baina kimuekin eta infantilekin entrenatzen aritu gara, irailaren hirugarren asteburuan Espainiako Txapelketak dituztelako, eta urrian Liga Nazionala". Horren ondotik, Euskal Ligako lasterketak eta indoorren bat izango dute.

Burunda klubeko eskola mailako txirrindulariendako pista berria entrenatzeko aukera paregabea izango da.


"Oso pozik gaude. Pistak klubari bizia eta etorkizuna emango dio"

OSCAR ZAMARRON

testeban hirugarren eta Oiarbide-Urrutia laugarren izan ziren.

Erdozia eta Oiarbide, finalera

Abuztuaren 14an Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu zen Donamarian. Hamar bikote lehiatu ziren, eta lehen bostek lortu zuten irailaren 27an Uharte Iruñean jokatu den finalerako txartela. Tartean daude Jon Erdozia eta Aritz Oiarbide, sailkapenean bigarren eta hirugarren. Patxi Igoa zortzigarren sailkatu zen.



ALTSASUKO UDALA

Pista berriaren ezaugarriak

Pista berria 4.550 m²-ko lursailan jasoko da, eta Nafarroako Irriaketa Federazioak ezarritako baldintzak beteko ditu. Pistaren zabalera 6 metrokoa izanen da, eta horri arauetan ezarritako segurtasun eremuak gehitu behar zaizkio. 55,00 m-ko bi tarte zuzen eta 14,32 m-ko bi erradio kurba izanen ditu. Pistaren barne luzera 200 metrokoa izanen da. Tarte zuzenak pistaren %55 izanen dira eta bihurguneak %45. Peraltea duen pista da; tarte zuzenetan peraltea %0,10ekoa izanen da, eta %10koa bihurguneetan. Zoladura asfalto tapizagarria da, oso itxia eta homogenea; gainazal leuna du, kirola egiteko egokia. Bi aldeetan porlanezko zintarriak jarriko dira, eta euri urak biltzeko sareta.

AIZKORA

Oier Mitxelena eta Osinalde, Sunbillako gorenean**M.B.G. SAKANA**

Abuztuaren 9an jokatu zen 23. Ramon Latasa Saria aizkora txapelketa entzutetsua. Txapelketaren barruan Gazte Aizkolari IX. Ramon Latasa saria zegoen. Hiru sakandar lehiatu ziren: Oier Mitxelenak Unai Etxeberria "Osinalde"-rekin osatu zuen bikoa, Aritz Oiarbide Julen Urrutiarekin eta Jon Er-

doziak Mikel Santestebanekin. Haiekin batera Igoi Pikabea eta Beñat Senosiain lehiatu ziren. Biko bakoitzak sei kanaerdiko erdibitu behar izan zituen. Mitxelena-Osinaldek eta Pikabea-Senosiainek lehia oso estua izan zuten azken bi enborretaraino; azkenean, Mitxelena-Osinalde txapel preziatua jantzi zuten, 10 segundo aterata. Erdozia-San-



Txapeldunak, lanean. MIGUEL OSES

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN:
Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

ALTSASU Kontzertua.
Kultur 2026: Hoge berriro taldea.
20:00etan, Foru plazan.

EUSKARAZ
ETXARRI Aranatz Kontzertua. Hariztiyen kontzertuak: Esanezin eta Mikel Urdangarin.
20:30ean, Andra Mari ermitako zelaian.

ALTSASU Bakarrizketa.
Lo que os conté mientras me hacía el gracioso. Un show de comedia de Inixio (en progreso) ikuskizuna.
22:00etan, Haritza tabernan.

LARUNBATA 5

EUSKARAZ
LIZARRAGA Magia ikuskizuna. Smile magia ikuskizun bat.
18:30ean, auzoan.

ALTSASU Ikuskizuna.
Festaurrekoa: Preguntamelón Millan Salcedoren ikuskizuna.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Pilota. Otadiako Santo Cristo Pilota Txapelketaren LIV. Edizioko finalaurrekoak, Pilotajauku klubak antolatuta.
22:00etan, Burunda pilotalekua.

IGANDEA 6

OLATZAGUTIA Ekitaldia.
Otsaportillo 1936-2026 Oroimenetik askatasunera ekitaldia. Sakanako Udalek

antolatuta, Uharte Arakilgo eta Irañetako Udalen ardurapean.
12:30ean, Otsaportilloko oroigarrian.

ALTSASU Topaketa.
Festaurrekoa: Altsasuko kilikiekin topaketa.
17:30ean, lortia zabalgunean.

UHARTE Arakil Kontzertua. Alicia Griffithsen harpa kontzertua.
18:00etan, Zamartze monastegian.

ASTELEHENA 7

ALTSASU Ikastaroa.
Zortzikoa eta Larrain dantza ikasteko ikastaroa, Etorkizuna dantza taldearen eskutik.
20:00etan, Burunda frontoian.

ASTEARTEA 8

ALTSASU Ikastaroa.
Zortzikoa eta Larrain dantza ikasteko ikastaroa, Etorkizuna dantza taldearen eskutik.
20:00etan, Burunda frontoian.

ASTEAZKENA 9

ALTSASU Kontzertua.
Camelame taldea.
19:30ean, Foru plazan.

ALTSASU Ikastaroa.
Zortzikoa eta Larrain dantza ikasteko ikastaroa, Etorkizuna dantza taldearen eskutik.
20:00etan, Burunda frontoian.

GUAIXEREN UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA!



SARIAK:

**SAKANA DETAILEN KOTXE
GARBIKETA OSOA**

**LAURA ESTETICA MASAJEA
EDO AURPEGIKO GARBIKETA**

**LACTURALE "ZURE PISUA
ESNETAN"**



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.GUAIXE.EUS-EN

**IRAILAREN 4AN
PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA!
... ETA ONDOREN, BOZKETA.**



Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

*Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea*

Erozketa Irurtzunen

ESKELA

Jose Manuel Azpiroz Armendariz

III. urteurrena

Hiru urte pasa dira ixil ixilik joan zinenetik baina gure bihotzen taupada bakoitzean eta pentsamendu orotan zaude, eta egongo zara.

Zure familia



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Hondakin zerbitzuak hiru peoi-gidari kontratatuko oposaketa egingo du: Baldintzak eta izen emateak *sakana-mank.eus* webgunean daude.

Uharte Arakilgo Jubilatutako elkartea tabernari bila dabil: Elkarteko zuzendariak hautagaiak elkarriketatuko ditu, izena emateko haiekin harremanetan jarri.

Lakuntzako Udalak lau hilabetetarako langilea kontratatuko du: Izen emateak irailaren 7ra arte, Nafar Lansarek Altsasun duen bulegoan.

Etxarri Aranatz eta Olaztikoko Udalek aldi baterako kultur teknikaria kontratatuko du: Hauta-probak elkarrekin egingen dituzten horretarako. Informazio gehiago eta izen emateak Etxarri Aranatzko Udalaren egoitza elektronikoa.

IKASTAROAK

Irurtzango Belaunaldien arteko tailerretan izena ematea zabalik: Irurtzango Udalak eta Jubilociok antolatutako tailerrak irailaren 11n dira, izena emateak, kultur etxean.

Teknoadineko Sareak bi jarduerak antolatu ditu irailerako: Doakoak dira eta izen ematea zabalik dago. Elkar zaintzen prebentziorako ikastaroa eta formakuntza Edadismo eta Ekintza komunitarioaren inguruko ikastaroak.

Etxarri Aranatzko Udalak ikastaro eskaintzan izena emateko epea zabaldu du: Irailaren 11ra

arte, bertatik pasatu. Yoga, soinketa leuna, tonifikazioa, etab eskaintza zabalago. Informazio gehiago web orrian.

OHARRAK

Olaztikoko Udalak izena emateko epea zabalik: Ludoteka astelehene-ostegunera zabalik egoten da, 17:00etatik 19:00etara. Izen ematea udaletxean.

Nekazaritza ibilgailuen IAT pasatzeko unitate mugikorra iralean Sakanan barna ibiliko da: 7an Uharte Arakil, 8an Lakuntzan, 9an Arbizun, 10ean Lizarragan, 11n Unanun, 14an eta 15ean Etxarri Aranatz, 16an eta 17an Iturmendin, 18an

eta 21ean Altsasun, 22an Olaztin eta 23an Ziordian. Herri guztietan, goizeko 9:30tik 14:15era

Josu Zabala Salegi 'Basajaun'-en heriotza argitzeko ekimena: Egia llnpetik Argira ikerketa babesteko ekarpen ekonomikoa kontu korronte honetan egin dezakezu ES04 3035 0116 92 1160027007.

Unanuko mediku kontsumitzailearen ordutegi berria: Ostegunetan 12:30tik 13:30ra zabalduko da, asteartetan Dorraoko kontsumitzailearen joateko txanda eskatu dezakete unanuarrek.

Dorraoko mediku kontsumitzailearen ordutegi berria: Asteartetan

12:30tik 13:30ra zabalduko da, ostegunetan Unanuko kontsumitzailearen joateko txanda eskatu dezakete dorrobarrek.

Kontsumitzaileei arreta emateko Altsasuko udal bulegoa: Asteartetan, 012 zerbitzuaren hitzordua hartuta. Nafarroako Kontsumitzaileen Elkartea, Iratxe.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakanan Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Uda-

leko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezua zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 32 85 93.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak *info.hondakinak@sakana-mank.eus* e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkarrekin zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago *www.sakana-mank.eus* web orrian.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

Iragarkia jartzeko

948 564 275

iragarki@guaixe.eus

www.guaixe.eus/iragarkiak

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Guaixek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta *guaixe.eus*-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

IRACHE KONPROMISOAK

hurbilketa

Hasieratik, beti izan dugu tokiko eredu baten aldeko apustua. Horregatik 58 zentro ditugu Nafarroako hainbat herri eta hiritan.

GURE ZENTROAK ZONALDE HONETAN
ALTSASU, IRURTZUM, BETELU, LEKUNBERRI, LEITZA

IRACHE

tanatorioak

TANATORIOSIRACHE.ES / 948 19 70 70

ZIRKUA

25 urte zirkua zabaltzen

Ezin zailago Nafarroako zirku jaialdiaren emanaldia izan zen, Altsasun

ALTSASU

Duela 25 urte Nafarroako zen-bait udalek udan kaleko programazioa egitea pentsatu zuten; kalean egiteko arte eszeniko egokiena zirkua da. Herri horiek mankomunitatuko programa baten bidez elkartu ziren eta zirku jaialdi bat antolatzeke dirulaguntza jaso zuten. Horrela sortu zen Más difícil todavía - Ezin zailago Nafarroako zirku jaialdia. Hortaz, aurten jaialdiaren 25. urteurrena da eta ospatzeko Spanish Circo konpainiaren Fins el Cel ikuskizunaren emanaldia antolatu dituzte egitasmoan parte hartzen duten bost herritan.

Abuztuaren 29an izan zen Altsasun Ezin zailago jaialdiaren geldialdia *Fins el Cel* ikuskizunarekin, Felipe Lezea Iortia kultur gunearen aurrean dagoen zabalgunen izendatu berrian. Aurretik, Vianan izan zen (abuztuaren 28an), eta ondoren San Adrianen (abuztuaren 30ean). Aurtengo jaialdia oraindik ez da amaitu, eta gaur, irailak 4, ostirala, Tuteran izanen da, eta bihar, irailak 5, Uhartan. Urteekin ikus-entzu-



'Fins el Cel' ikuskizunaren une bat. NEREA MAZKIRAN

le gehiago batu dira jaialdira, eta dagoeneko tradiziozkoa eta erreferentziazkoa bihurtu da. Altsasuren kasuan ere festaurrekoen egitarauaren parte bihurtu da.

Zirku karabana

Festibalaren ideia nagusia zirku ikuskizunena programa bera herri bakoitzean egitea zen, eta ideia horrekin 25 urtez jarraitu dute. Bi hamarkada baino gehiago hauetan kontaezinak dira bost herri-tatik pasa diren zirku konpai-

niak eta ikuskizunak. Urtero bi eta hiru emanaldiren artean izaten ziren eta garai bateko zirku karabana bailitzan Nafarroatik mugitzen ziren. Behin jaialdia herrian dela, plazak eta kaleak eszenatoki eta publikoaren eta artisten arteko topaketa bihurtzen dira. Aurtengo edizioan, 25. urteurrenaren ospakizun berezia egin dute, eta konpainia bakarrak parte hartu du jaialdian: Spanish Circo.

Zirkua eta arte eszenikoak uztartzen dituzten eta zirku

garaikidea izan dira Ezin zailago jaialdiaren bereizgarriak. Bi hamarkada eta gehiago hauetan ideia berriak erakutsi dituzten goi mailako konpainiek parte hartu dute.

'Fins el Cel'

Ezin zailago zirku jaialdiaren 25. jaialdiaren protagonista Valentziako Spanish Circo konpainiaren *Fins el Cel* izan da, eta jaialdiaren helburuen adierazgarri da: zirkuaren elementuen bidez, ikuskizunak bidei, topaketei, ametei eta beste-kiko konfiantzarekin urrun iristeko ahalmenenari buruz hitz egiteko du. Konpainia 2019n sortu zuten, eta oinarrian zirku garaikidea dute, baita arte eszenikoetan lengoia berriak ikertzea ere.

2025ean *Fins el Cel* ikuskizuna mustu zuten, eta emanaldian zehar gizakiaren bizitza prozesuaren espazio eta denboratik bidaizatzen du. Errusiar barra eta porte kolektiboak ditu oinarrian. Pau Portablle da zuzendaria, eta Cira Cabases, Naikel Blazquez, Victor Segarra, Edu Martinez, Cristobal Sandoval, Elena Ayala eta Gilberto Auban dira artistak. Akrobazien entrenamendua Citaly Motuzka eta Rafa Blanco gidatu dituzte, Itamar Glucksman begiradapean, eta koreografia Roseta Plasencia-rena da. Musika eta musika zuzendaritza Gilberton Auban Gibertasticorena da.



KULTUR AGENDA

Hogei berriro, zuzenean

Nafarroako Gobernuaren Kultur 2026 programaren barruan, Hogei Berriro taldearen kontzertua izanen da, gaur, ostirala, 20:00etan, Altsasuko Foru plazan. Abeslaria Maider Ansa da eta azken hogei urtetako kanten bertsioak egiten dituzte.

Inixio, etxean

Hogei Berriro kontzertuaren ondoren, Inixio Amillano Casteig umoregile altsasuarraren *Lo que os conté mientras me hacía el gracioso* bakarrikzeta izanen da, Haritza tabernan.

Hariztiyaren kontzertuak

Gaur, 20:30ean, Etxarri Aranazko Andremeriko ermitaren zelaian, Esanezin lanire Aranzaberen musika proiektuaren eta Mikel Urdangarinen kontzertuak izanen dira.

Magia Ergoienan

Ergoiena bizirik egitasmoaren barruan *Smile, magia ikuskizun bat* saioa izanen da, bihar, larunbata, 18:30ean, Lizarragako auzoan.

Arpa Zamartzen

Igandean, 18:00etan, Alicia Griffith Urritzolan bizi den arpa jotzaileak kontzertua emanen du, Uharte Arakilgo Zamartzen.

Festaurrekoak

Altsasuko festen aurretik, larunbatean, 19:30ean, Millan Salcedo Martes y Trecearen kide izandakoaren *Preguntamelón* ikuskizuna izanen da, lortian (azken sarrerak). Irailaren 9an, 19:30ean, Foru plazan, Camelame Camela taldearen tributu kontzertua izanen da.

ZINEMA

Urbasa platoa bihurtuta


Disney konpainiako filma grabatu dute. Bideak itxi eta ingurua hondatu dutela salatu dute

OLAZTI

Abuztuaren 6tik aurrera Urbasa-Andia parke naturaleko Marterutxo eta Zelaiaundiko bidezidorrak itxi eta Sorosgain, Morterutxo eta Bioitzako aparkalekuak ezingo zirela erabili jakinarazi zuen Nafarroako Gobernuak abuztuaren 4an. Arrazoa "filmaketa zinematografiko" bat izanen zela zen. Egunak pasa ahala jakin zen Disney konpainiaren film bat grabatuko zutela natur parkean, Enredados filmaren life action-a, hain zuzen.

"Disneyren fantasiazko munduak, Urbasako Sorgindutako Basoaren bideak suntsitu" dituela salatu du Olazti naturak, "hori guztia, administrazioaren oniritziarekin". Bideak eta aparkalekuak itxi ez ezik, "autopista bat" egin izana, lehorte garaian egin izana eta ingurugiroan ikasketarik izan gabe jende multzo handi bat egon izana salatu du Olaztiko taldeak, baita hainbat herritarrek ere.

Olazti Naturak azaldu duenez, Urbasa-Andia Natur Parkea legearen arabera (Foru Dekre-



Bidea itxita dagoela jakinarazi duen kartela, abuztuaren erdialdian.

tua 267/1996, uztailaren 1) ingurugiroan ezin dira horrelakoak egin, baina azken hilabeteetan aldaketa bat izan da 21. artikuluan (Foru Dekretua 19/2026, martxoaren 4), eta kompetentzia duen departamentua-

ri "nahi duena" egiteko ahalmena ematen zaio.

Abuztuaren azken astean desmuntatzen ari ziren, eta beste bi astez ingurugiroa birnaturalizatzen ariko direla jakinarazi dute.

MUSIKA

Gonzalez Aciluren funts dokumentala



NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Artxiboak Agustin Gonzalez Acilu musikagile altsasuarraren funts dokumentala jaso du dohaintzan. Musikaria XX. mendearen bigarren erdialdeko konpositore nagusietako bat da, eta duela 2023an hil zen. Uztailaren amaieran konpositorearen funts dokumentalaren dohaintza aurkezteko ekitaldia egin zuten Nafarroako Errege Artxibo Nagusian.

BAZTERRETIK

Nork zelatatuko du komikizalea?



MIKEL MAIZA RAZKIN

Ene jarraitzaile amorratueneke badakite azken bolada honetan ez naizela super heroi komikien zale handiena. Azken finean, pijamekin moztortutako kuadrilla baten dramak kontatzen dizkigute. Super heroiak autore ezberdinen eskutatik pasatzen dira. Ultra esplotatuta dauden pertsonaiek gero eta zailagoa dute komikien munduan nabarmentzeko. Are gehiago, publiko guztientzat bideratuta daudenez, zaila izaten da autoreentzat gai serioak edo interesagarriak jorratzea.

Komiki amerikarrak beti izan dute alde bateko edo besteko karga politiko eta propagandistikoa. Argitaratzen hasi ziren lehen momentutik. *X-men* beti izan da arrazakeriaren aurkako kritika handia. *Superman* Estatu Batuen herrialdearen eta baloreen ikurra bezala erabili da, zineman ere bai... Adibide hauen gainetik badago maisu lan bat. Komiki bat hain garrantzitsu, famatu eta esanguratsua, edozein komikizalek irakurri duena. Irakurri ez duenak, ordea, egin duela esango du besteek benetako komikizalea

dela jakin dezaten. Badakizue noski zein den komiki hau: *Watchmen*.

Watchmen komiki amerikarren industria ustelduaren kritika zorrotza da. Alan Moore eta Dave Gibbons autoreek super heroien anti-komikia sortu zuten. Garaiko komikietan dinamismoa, akzioa eta umore zuria bilatzen bazen, Moorek introspektzioa, lasaitasuna eta bortizkeriaz josi zuen *Watchmen*. *Watchmen*eko heroiek ez dute mundua salbatzen eta ez dira idoloak. Haien bizitzak maldan behera doaz, frenorik gabe, ezin dute haien burua salbatu ere. Eten gabeko 700 kapitulu jarraiko komikien munduan, *Watchmen*ek 12 besterik ez ditu, eta kitto.

Zoritzarrez, *Watchmen*ek ihesi egin nahi zuen, baina logika kapitalistak berdin berdin harrapatu zuen. Jende askok ez zuen komikia ulertu. Normala, bestalde. Tipula batek baino kapa gehiago dituen obra korapilatsua da *Watchmen*. Irakurri eta dastatu zuen kabuz, lagunok. Eta gogoratu, edonork galdetzen badu: Noski *Watchmen* irakurri duzuela! Galdetzea ere...

ARTE ESZENIKOAK

"Pasioa daukat egiten ditudan proiektuekin; asko inplikatzeko naiz"

KATRIN GINEA MUNDIÑANO EKOIZLEA ETA KOORDINATZAILEA

ZETAken 'Mitoaroa' ikuskizunetan artisen koordinatzailea izan zen. Orain Suakai taldearekin lanean ari da eta, besteak beste, ekoizpen arduraduna da

ZETAk ekainean San Mamesen egin zuen *Mitoaroa III. Mariren etorrera* ikuskizunean 350 pertsona baino gehiago pasa ziren eszenatokitik eta, besteak beste, horiek kudeatzen Katrin Ginea egon zen. Pello Reparazek egindako hiru ikuskizunetan lan egin du arbizuarrak; Eskandinavian bizitzen zegoela jaso zuen proposamena. Hainbat proiektuan murgilduta dago, tartean Suakai musika taldearen ekoizpen arduraduna da.

Nola iritsi zinen 'Mitoaroa' proiektura?

Bitxia da. Nik Iruñeko Geltoki proiektuan lan egiten nuen. Koordinatzailea nintzen. Prozesu pertsonal gogor batetik pasa nintzen eta gorputzak eta buruak gelditzeko esan zidaten eta lana utzi nuen. Orduan, bidaiatu nahi nuela erabaki nuen eta Eskandinaviara joan nintzen. Suedian hainbat hilabete egon nintzen eta hor nengoela Pellori beste batendako fabore bat eskatzeko idatzi nion, eta berak bueltan beste bat bidali zidan: "Katrin, *Mitoaroa*-rekin laguntza behar dut; pertsonaien koordinatzaile bat behar dut eta badakit kanpoan zaudela baina...". Gabonak zirenez eta Gabonetarako itzuliko nintzenez, baietz esan nion.

Lehenengo 'Mitoaroa'-rako?

Bai, hori da. Hori izan zen 2024ko azaroan (*Mitoaroa I* 2025eko ilbeltzaren hasieran izan zen, Nafarroa Arenan). Lan hori hilabete eta erdian egin genuen. Egia da aurretik lana eginga zegoela, pertsonaia batzuekin hitz eginda zeukan, momotxoroeekin, kasu, Unanun egindako kontzertuan egon zirelako. Baina joaldunekin, esaterako, harremanetan jarri behar nintzen ere. Horrela sortu zen aukera. Egia da Pelloarekin aurretik hainbat lan eginda nituela, herrikoak

gara, elkar ezagutzen dugu, lagunak gara.

Musikaren munduan ibilia zinen?

Musikaren munduan, egia esan, ez hainbeste. Azken urteetan gehienbat kultur programazioan, zinemaren munduan eta produkzioan aritu naiz.

Zein izan zure lana 'Mitoaroa'-n?

Mitoaroa-n herrietako inauterietako pertsonaia kudeatzea izan da nire lana. Azken honetan artistikako koordinatzailea izan naiz. Zer esan nahi du horrek? Alde batetik, momotxorroak, mamuxarroak, joaldun txatar eta horiekin guztiekin harremanetan jartzea, nortasun agiriak eskatzea, nor etorriko den konfirmatzea, entseguak kudeatzea... Baita aktore eta kolaboratzaile guztiak kudeatzea ere; noiz etortzen ziren, hotelak, entseguak, makillaje eta ile apaintzaile probak noiz egin, jantzitegia, neurriak eskatu... Musikarientzat laguntzaile bat izan dut, Urki, eta Urkik musikariak koordinatu ditu.

Noiz hasi zineten prestatzen?

Urtarrilaren 15ean Pellok eta lantaldeak gidatuta aurkeztu zuten, San Mamesen. Bost hilabete baino gehiago.

Zenbat pertsona kudeatu zenituen?

Eszenatoki gainetik 370 pertsona inguru pasa ziren. Gehienak herri inauterietako pertsonaia izan dira: Altsasuko momotxorroak, Unanuko mamuxarroak eta Arbizuko txatarrak... Eta San Mamesen ere, ekainean, Galiziatik etorri ziren. Galiziako

hiru inauteri ekarri ditugu, ni sei herrirekin jarri nintzen harremanetan, baina ezin izan zuten. Oraingo honetan ere Sargudako alargunak izan ditugu, 82 direnak. Horiek taldean aritzen dira eta koordinatzaile batekin hitz egiten nuen eta bera arduratzen zen komunikazioa helarazteaz. Kasu horretan ez zegoen jantzitegi frogarik, makillajerik eta abarrik beraiek kudeatzen zutelako. Baina, bestela, aktore eta musikari guztien jantzitegia kudeatu behar genuen. Hamabi makillatzaile eta ile apaintzaile egon ziren. Horrek erakusten du zer nolako tamaina izan zuen. 15:30ean hasi ziren makillatzen eta ikuskizuna 22:00etan zen. Azken orduan askori txip bat jarri behar zitzaion ere.

Zer behar da koordinazio lan hori egiteko?

Bizia eta erresolutiboa izatea; lanetara aurreratzea. Baita jendearekin goxoa izatea ere, eta dagokizunean zure tokian jartzea. Azkenean, herri inauterietako pertsonaiei ordaintzen bazaie ere, ez da lan bat, eta zaindu behar dira. Aktoreak eta kolaboratzaileak ere zaindu behar dira, noski, baina haien lana da. Garrantzitsua da jarrera ona izatea. Alde horretatik jendea oso pozik egon da. Laguntzaile bat izan dut, Kris; San Mamesen jende guztia kamerinoetan egozteaz arduratzen zen.

Kolaborazio handiak izan dituzte 'Mitoaroa' ikuskizunek, lan zaila izan da horiek bilatzea?

Ez. Batzuk Pellok oso argi zuen pertsona hori nahi zuela eta zuzenean berak kontaktatu zuen beraiekin -Grisson edo Samantha Hudson-, eta beste batzuk gidatzen pertsona aurkeztu zen eta kastina egin genuen. Kastinak egiteko pertsona bat genuen, eta berak aktoreak pro-

"Kultur programazioan, zinemaren munduan eta produkzioan aritu naiz"



Katrin Ginea, ezkerrean, Mitoaroa-ren koordinazio lanetan. IKER GOZATEGI

posatzen zituen eta Pellok egokienak aukeratzen zituen. Kasu gehienetan baiezkoa izan da eta ezezkoetan lan kontuengatik ezin zutelako izan da. Jendea prest zegoen. Euskaldunendako sekulako proiektzioa izan da eta oso pozik egon dira. Estatu mailakoak ere, Samantha, Loles, Grison... Parte hartzearekin oso pozik zeuden eta oso jatorrak dira. Niretako oso erraza izan da beraiekin lan egitea. Batzuk agente bat zuten eta beraiekin hitz egiten genuen, eta beste batzuk zuenean beraiekin. Behin amaituta, zer esaten zuten?

Oso pozik gelditu ziren. Denak. Flipaturik. Denek aipatzen zuten Pelloren ahalmena gauza hauek egiteko. Gogoratzen naiz lehenengo gidoia irakurri nuenean jartzen zuela: Pello ur tanke batean sartzen da. Eta pentsatu nuen: Zer??? Flipatu nuen. Eta orain San Mamesekoaren ondoren hori gutxienekoa iruditzen zait! Aktore eta kolaboratzaile guztiek ikusi dute. Ikuskizuna ondo joan da, zaindu ditugu, Pellorekin ondo egon dira oso gertukoa delako eta batek baino gehiagok esan dit prest dagoela hurrengorako ere. Ia denek esan dute.

Eta zu hurrengoan egongo zara? Ez dakit. Ikuskizuna eta gidoia prestatzen ari da, beraz, ideiarik ez daukat. Ni pertsonaia, aktoreak eta kolaborazioak egon direnean egon naiz, eta horrek ez du esan nahi hurrengoan badaude ere nirekin kontaktatuko duenik. Gustatuko litzaidake, noski baietz.

Beste proiektu batean zaude: Suakai. Nola sortu zen aukera?

Suakai aspaldi ezagutzen nuen. Egiten dutena pila bat gustatzen zait. Ivan Carmona eta Claudia Oses dira musikariak, eta musikari buelta bat eman diote. Klasikotik datoz eta elektronika egiten dute. Kolektibo bat dira eta ikuskizunaren arabera musikari batzuekin edo beste batzuekin parte hartzen dute. Beraien lana jarraitzen nuen eta bat-batean lanpostua sortu zen eta profila erabat betetzen nuen: ekoizpena eta dirulaguntzen kudeaketa. Geltokian ere dirulaguntzak kudeatzen nituen. Justu urtarrilean erabaki nuen autonomo jartzea artista eta kolektiboendako dirulaguntzak kudeatzeko, deitu ninduten eta sartu nintzen. Musika banden federaziorako dirulaguntzak kudeatzen egon naiz ere. Hiru proiektuekin batera aritu naiz. Oso lanpetuta, egia esan. Suakairekin biran egon naiz; espainiar estatutik *Musica en cada rincón* proiektua egiten dute, zazpi garren urtea da, eta herri oso txikietara musika eramaten dute. Hain zuzen, sartu nintzeanean lehenengo lana espainiar estatuko diputazio guztiekin harremanetan jartzea izan zen, proiektu hau aurrera eramateko. Denboraldi berrian berriekin datoz, baina oraindik ezin dut esan. Abenduaren 30ean ere Nafarroa Arenan erraldoekin ikuskizun handia egingo dute. Aurten hamar urte betetzen dute eta gauza berezi pila bat prestatzen ari dira. Datorren urterako sekulakoak prestatzen ari dira.

Zure lana nahiko ezkutukoa da, ezta?

Askok galdetzen didate ea zein den nire lana, bai. Egia da jende gehienak ez duela ikusten hor atzean dagoen lan guztia. Kaleko jendeak ez du hori sumatzen. Emaizta ona denean, atzean dagoen lan hori ona izan delako da. Mitoaroan, adibidez, aktoreek eta kolaboratzaileek ikusten dute atzean dagoen lan hori. Ordu

askoko lan bat da, lan handia; ordenagailuaren eta telefonoaren aurrean ordu asko pasatzen ditut. Gainera, proiektuetan asko inplikitzen naiz, eta ez dakit deskonektatzen. Suakain, adibidez, bi pertsona gaude, eta askotan esaten didate bi pertsona egotean hainbeste lan ote dagoen, eta bai. Dirulaguntzak eskatzea ez da batere erraza izaten, dokumentazio asko eskatzen dute eta abar.

Proiektu gehiago aurreikusten dituzu?

Lorena Arangoa clownarekin elkartu nintzen dirulaguntzak kudeatzeko pertsona bat behar duelako, eta harremanetan gaude. Horrelako proiektuetan. Pasioa daukat egiten ditudan proiektuekin. Nire lana ulertzen administrazio lana dela esan daiteke. Geltokian nik eramaten nuen administrazio, aholkularitza batekin. Aurrekontuak eta dirulaguntzak nik kudeatzen nituen. Administrazio lan asko dago eta kulturaren munduan lan hori gorrotu duen jende asko dago; artista gehienak oso onak dira artista lanetan, baina kudeatzen ez. Tristeia da, baina kulturaren munduan dirulaguntzekin lan egiten da, eta nire profileko pertsonak behar dira.

Atzerrian bizitzen egon zinen, zergatik Eskandinavia?

Bizitza guztian zehar denboraldi batez atzerrian bizi nahi izan dut; ingelesa ikasteko edo hobetzeko. Arrazoi desberdinengatik ezin izan dut egin bizitza osoan,

"Bizia eta erresolutiboa izan behar zara, lanetara aurreratzea; baina gozo izatea ere"

"Niretako oso erraza izan da beraiekin lan egitea; prest zeuden eta oso jatorrak dira"

"Pila bat gustatzen zait Suakaik egiten duena; musika klasikoari buelta eman diote"

eta 40 urte bete nituenean eta sasoi horretan nengonean pentsatu nuen ez banuen orduan egiten, ez nuela egingo, eta ideia burutik kentzen hasi nintzen. Duela hiru urte ama hil zen, eta gorputzean gaixotasun pila bat ateratzen hasi zitzaidan. Ziatika batekin baja hartu nuen, baina lanera itzuli nahi nuen, eta hurrengo egunean baja hartu behar izan nuen berriz ere konjuntibitis birika fotofobika batengatik. **Gorputza hitz egiten ari zen.**

Bai. Medikuek esan zidan gelditu arte gorputzean bata bestearen atzetik jarriko zitzaizkidala. Hor erabaki nuen Geltoki uztea. Sekulako pena eman zidan nik jarri nuelako martxan; beste batzuekin batera, baina nire proiektua zen. Utzi nuen eta momentu horretan pentsatu nuen: bada agian bidaiatzera noa. Nora? Hasiera batean Amerikako Estatu Batuetara joatea pentsatu nuen. Bertako lagun bat daukat eta berak joateko esan zidan. Begiratzen hasi nintzen ikasle bisado batekin joaten turista bezala bakarrik hiru hilabeterako delako, eta momentu horretan Trump iritsi berri zen eta tiroa eman ziotenean izan zen... Ni ere ez nengoen prest depresio batetik pasa nintzelako. Fisikoki gaizki nengoen, eta depresioarekin ere. Bakar-dadea etorri zitzaidan eta ahizpak gertu izan nahi nituen eta AEBetatik itzultzea ez zen hain erraza. Horregatik Europa pentsatu nuen. Duela urte batzuk bidaiatu nahi izan nuen, baina oso garestia zen eta lagun batek esan zigun ez zela sasoirik hoberena joateko. Baina unea iritsi zen; boluntario bezala Eskandinaviara joatea pentsatu nuen. Kultur proiektu desberdinetan boluntario lanak egiten egon naiz; ohe eta janari trukean lau ordu egiten duzu lan eta bertako jendea ezagutzen duzu. Haien hizkuntza dute, baina ingelesa maila altua dute ere. Oso ondo pasa nuen, baina momentu oso gogorrak izan nituen ere. Oso hotza da, arlo guztietan. Askok kostatzen zaie sozializatzea. Lau hilabete Suedian eta lau Kopenhagen pasa nituen. Arbizura etortzen diren bertakoekin egon nintzen eta gero laneko arduradunarekin ere ateratzen nintzen, baina bestela jendeak ez zidan beraiekin ateratzeko esaten. Baina aldi berean oso polita izan da, eta zonalde hori oso polita da.



Juan Mari Garziandia Lakuntza, Txokolo, atzean barga irudikatzen duen eskultura duela.

11 GALDERA

"Oso gustura egoten naiz harria lantzen. Segitzen dut, baina gauza txikiak egiten"

JUAN MARI GARZIANDIA LAKUNTZA, TXOKOLO HARRIA LANDU ZALEA

Etxarri Aranazko ur biltegi zaharraren ondoko iturria edertzen du Barga irudikatzen duen eskultura. Garila akabera jarri zuten.

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ

1 Nolz bururatu zitzaizun barginen eskultura bat egitea?

Autoz hona etorri eta burnizko iturri bat zegoela ikusi nuen. Itsusi zegoen. Niri iritziz, burniak basoan ez du itsurik egiten. Harria politagoa da. Alkateari hala esan nion. Harrizko zerbait egiteko prest nengoela esan

nion. Baiezkoa jaso nuen, eta aurrera.

2 Harri batek baino gehiagok osatzen dute eskultura, ezta?

Dozena bat, gutxi gorabehera. Hasiera batean bargako zati bat egitekoa nintzen, garrantzitsue- na, Artzabal eta Baiza gainak hartzen dituen. Harri bakarrean egin behar nuen. Baina gero

animatu eta barga guztia egin genuen: Beriaindik Hiruhaitze- tara. Argi dago Leziza falta dela. Horregatik haren parean kurba moduan dago. Barga gainean zerua eta hiru laino jarri ditugu. Nabarmenduta daude San Adrian ermita, Artzabal, Baiza, Lizarragako eta Etxarriko askak eta bargan dauden mendixkak. Luzeran 3,30 metro dauzka. Eskul-

tura egiteko arbera erabili dugu, baina Beriain egin dugun harria ikaragarri gogorra atera zaigu. Nahiz eta toki berekoak izan.

3 Harriak lotu behar izan zenituzten, ezta?

Bai, ikusten da pieza bakarra ez dela. Lotuneek jendea nahasten dute. Batzuek esaten dute zerua kentzeko eta mendiaren erliebea uzteko. Baina niretako politagoa da zerua eta mendia- rekin.

4 Bakarrik aritu zara lanean?

Juan Manuel Sanchezek asko lagundu dit. Eta beste batzuk ere. Harriak ekarri zituen traktorista, Valentin. Beti egon da bakarren bat laguntzen. Udala- ren biltegian egin dugu. Handik traktorean ekarri genuen honu- tza. Eskultura jartzeko murrua egina zegoen eta piezak gainean muntatu genituen. Konponketa batzuk egin beharra du oraindik.

5 Panel batean toponimoen berri eman duzue.

Jendeak bakarrik harri kozkor bat ikusi beharrean, tokien ize- nak ikasteko modua da. Berta- koek beharbada jakinen dute, baina kanpotarrek ikasiko di- tuzte. Jendea gidatzeko balio du.

6 Noiz hasi zineten eskultura egiten?

Otsailaren akabera. Maiatzaren 1erako jarri nahi genuen, baina luzatu da eta festetarako zegoen.

7 Aurretik horrelako lanak egin- da zaude, ezta?

Bai. Honekin Etxarrin hiru itu- rri eginak ditut. Andra Mari ermitakoa, 1993an eginda. La- gundu egin zidaten. Goiko ma- rrazkiak Jose Martin Albarracin, Baleztenak, egin zituen. Pablo

Zabalak eta asko lagundu nin- duten. Goiko eskultura nik egin nuen. Egun gaztetxea dagoen tokian lehen udal biltegia zegoen eta han egin genuen. Beriain, 1999ko maiatzaren jarritakoa plazako jolas parkearen eta kul- tur etxearen ondoan. Zuzkirena izan zen ideia. Pitilastik ekarri- tako pieza bakarrean egindako eskultura da hura. Hiltegi zaha- rrean egin genuen. Hortik nahi duzuna atera dezakezu. Bargako hau pieza bakarrean balego, jendeak hobe nabarituko luke. Hainbeste urte garneko beste iturriren bat eginen nuenik ez nuen uste. Eta Andra Mari er- mita parean, lurrean dagoen Euskal Herriko mapako harria Beriain iturriko harriaren "anaia" da, Pitillaskoa ere.

8 Etxerako edo lagunendako es- kulturak egin dituzu?

Etxerako. Nafarroako arma- rria-eta, gauza politak ditut.

9 Jendeak eskatzen dizkizu?

Eskatu, eskatu, ez. Baina bakarren bati egin izan diot zerbait.

10 Nola ikasi zenuen?

Ibili eta ibili, hala ikasi dut. Nire albiziora. Oso gustura egoten naiz harria lantzen. Se- gitzen dut, baina gauza txikiak egiten, maneia garriak. Beste iturri bat egiteko asmoa badut, baina boluntario gutxi ditut, nazkatuta ditut denak.

11 Halako lanak eginda, zure burua eskultoretzat duzu?

Bai zera. Ni zaletu bat besterik ez naiz. Harria lantzea ikaraga- rri gustatzen zait, eta kitto. Za- letasuna aspalditik dut, txikita- tik hasita. Ez dakit nola sartu zitzaidan harriarekiko zaleta- suna.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabeteen euro baten truke

(Errenta aitoreneko itzulketa kontuan izanda)



gk



Izena
Abizenak
NA/IFZ
Helbidea
Herria
Telefono zenbakia
Emaila
Bankuko kontu korrante zenbakia:
ES _ _ _ _ _



guaixe
fundazioa

948 564 275

618 882 675

admin@guaixe.eus

www.guaixe.eus

